

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Koronabirusa eta gu

PELLO OTXANDIANO > 11

ANALISIA:

Zaldibar, koronabirusa eta
krisi-komunikazioa > 18

2020ko martxoaren 14a | XIV. urtea • 663. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**BIRUS BERRIA,
MUNDU BERRIAN**

> 12 Raul BOGAJO | FOKU



4



8

Fukushimako herritarrek irain moduan bizi dute olinpiar zuzia bertara eramatea 04

Katherine Johnson, NASAn genero eta arraza oztopo guztiak gainditu zituen emakume beltza 08

Koronabirus berriaren transmisioa etetea da kezka eta erronka nagusia 12

Aldamioa goitik behera 16

Analisia: Zaldibar, koronabirusa eta krisi-komunikazioa 18

E.lkarrizketa: Asier Larrinaga, EITBko euskara zerbitzuko burua 22

Librea al da Internet? 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Datorrena

10 **Saioa Aginako Lamarain:**
Gorputz ziklikoak

11 **Pello Otxandiano:**
Koronabirusa eta gu

17 **EXPRAI**

20 **Arantxa Urbe:** Jaso dugu lekukoa, Joxe Mari!

21 **Iker Barandiaran:** Beldurra

27 **Miren Azkarate Badiola:**
Txakurrak beti txakur

27 **Antton Izagirre:** Oroitza

30 **Ana Arruarte Lasa:** Errealitate birtuala, errealitate areagotua eta errealitate mistoa: zer da zer?



22

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Datorrena

XI. mendean, hirugarren iraultza industrialaren atarian, teknologiak, robotizazioak eta inteligentzia artifizialak bizitza ulertu eta bizitzeko modua erabat aldatuko diguten ziur gauden garaiotan, genituen ziurtasun guztiak, sistema bera, kokan jartzera etorri da Txinan animalia basati batek sorturiko birus bat. Datozen egun eta asteetan ezohiko neurriak hartuko dira eta gure egunerokotasuna hankaz gora jarriko da, daramagun bizi erritmo frenetikoa motelduz.

Pepe Mujicak dio gizakiak daukan ondasun prezia-tuena denbora dela. Gizakiak bere denbora saltzen duela maite dituen gauzak egiteko denbora izateko. Batean edo bestean erabiltzen duzun zure denbora zatiaren arabera zoriontsuagoa edo zorigaiztokoagoa izango zara. Eta logikoa dirudi, familia, lagunekin eta maite dituzun gauzak egiten baino lanean eta maite ez dituzun gauzak egiten ematen baduzu zure bizitzaren parte garrantzitsu bat, oso zaila izango zaizu pozik eta alai egotea. Denbora. Datozen aldaketa estruktural sakonek lana eta lan egiteko moduak guztiz aldatuko ei dituzte, eta ziurrenik lanari eskaini beharko diogun denbora bera ere murriztu-ko da. Lanaren banaketa

egokiak, ondasunen banaketa egokiak denbora “librea-ren” banaketa justuagoa ekar lezake. Baina horretarako ere, trantsizioa ondo prestatzeko eta datozkigun erro-nka erraldoiei behar bezala aurre egin ahal izateko, erre-gulazioa, publikotasuna, kolektibotasuna indartu be-harko dira. Koronabirusaren krisiak agerian utziko ditu publikotasunaren garrantzia eta kolektibotasuna-ren ezinbestekotasuna. Ongizate sistema garatu eta unibertsalik gabe ezinezkoa da horrelako erro-nkei mo-du egokian erantzutea eta desparekotasuna gutxitzea.

Erronka eta mehatxu globalak dira, baina erantzun-ek globalak eta tokian tokikoak izan behar dute, bes-tela, jai. Zenbaitek diotenez Estatuaren rola geroz eta txikiagoa izango da, eta, beraz, Estatua izan edo ez izan

aukera berdintsuak izango ditugu batzuek eta besteek. Nik behintzat ez dut horrelakorik sinisten. Subiranota-suna partekatu ahal izateko lehenengo araua subira-notasuna izatea da, ez daukatenek ezin dutelako eraba-ki zer eta nola egin. Estaturik gabeko nazioek zailtasun gehiago izango ditugu datozen erro-nkei modu egokian erantzun ahal izateko, batetik ezin dugulako nazioarte-ko foroetan, foro multilateraletan Estatua daukaten beste horiekin guztiekin berdintasunean jokatu, eta, bestetik, ez dugulako gure lurraldean hartu beharreko erabaki guztiak hartu ahal izateko behar besteko ahal-menik. Eta kito. Gainontzeko teoriak, hitz potolo guz-tiak (kosubirautsa eta abar) poesia dira.

Ahaztu momentu batez teoriak eta begiratu erreali-tatea. Europar Batasuna garatzeak Estatuaren subirano-tasuna txikitu eta Estaturik gabeko herrien baitan Es-tatu bat izateko nahia eta beharrak txikituko zituztela esaten zuten berdinak dira gaur egun subiranotasun

Subiranotasuna partekatu ahal izateko
lehenengo araua subiranotasuna
izatea da, ez daukatenek ezin dutelako
erabaki zer eta nola egin

partekatuaz hitz egiten digutenak. Zer gertatu da? Az-ken 15-20 urteotan alderdi abertzaleen aldeko babesa txikitu edo handitu egin da Europako Estaturik gabeko herrietan? Begiratu Irlanda, Eskozia, Flandes, Korsika, Katalunia, Euskal Herria... eta atera kontuak.

Are gehiago, dudarik ez izan Europako mapak berriz ere aldatuko direla datozen urteetan, Estatu berriak jaioz eta Estatu batzuen mugak moldatuz. Norbere bu-ruaren jabe izatea horren kaltegarria balitz, azken ha-markada eta mendeetan independentzia eskuratu du-ten hainbat herrik atzerapausoa emango zuketena, dependentziara bueltatuz. Baina independentzia esku-ratu, ezagutu eta bizi izan dutenek ez dute dependen-tziara bueltatzeko ohiturarik. Zergatik izango da? •

JAPONIA

Fukushimako herritarrek irain moduan bizi dute olinpiar zuzia bertara eramatea

Gobernu japoniarrak erabaki du 2011ko istripu nuklear izugarria jasan behar izan zuen Fukushima eramatea olinpiar zuziaren ibilbidearen hasiera, baina bertakoez ez dute ilusioz bizi kontua, irain moduan baizik. Beren etxeak utzi behar izan zituztenek ez dute begi onez ikusten agintariez egindakoa.

«Fukushimak eta Tokiok dituzten kezka ez datoz bat», laburtu zuten egoera J-Village izeneko instalazioen ondoan elkartu ziren manifestariek. Bertatik aterako da hilaren 26an, koronabirusak aurkakoa

agintzen ez badu, olinpiar zuzia, herrialdeko ehunka herri bisitatzeko asmoarekin.

Tepeco Tokio Electric Power konpainiak finantzatzutako futbol entrenamenduak egite-

JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Joan den ostegunean hasi zen Olinpia leku historikoan olinpiar zuziaren ibilbidea. Grezian egun batzuk egin ondoren, hilaren 20an izango da Japonian eta martxoaren 26an Fukushima hasiko du makina bat hiri bisitatu dituen bidaia. Istripu nuklearraren ondorioak oraindik sufritzen dituztenak haserretu egin dira.

Otsailaren 29an egindako mobilizazioko manifestari honek bere dosimetroa erakusten die argazkilariei.
Charly TRIBALLEAU | AFP

ko luxuzko zentroa da J-Village. 1997an zabaldu zuten, istripu nuklearra izango zuen Fukushima Daiichi zentraletik hogeik kilometrora. Garai hartako diskurtso ofizialaren ara-

bera, energia nuklearrak «etorkizun distiratsua» bermatzen zien japoniarrei, Futaba herriaren sarreran ipinitako mezuan irakur zitekeenez.

Baina olinpiar zuziak, azkenean, inor bizi ez den lekuak bisitatu ditu, nahiz eta agintariez beste egoeraren batekin egiten zuten amets. Betiere, zuziaren bidaia bertan behera uzten ez badute, koronabirusaren aroan ez baitago ezer ziurtzat ematerik.

«SUFRTZEN ARI GARA»

«Guretzat, Fukushima biztanleontzat, zuzia hemendik abiarazteak adierazten du Gobernuak istripu nuklearraren kontua ixteko borondatea



duela. Guk umiliazio moduan bizi dugu», adierazi dio France-Presse agentziari Ruiko Muto ekintzaileak.

«Baldintza normalak izango bagenitu, gustatuko litzauguke Fukushima eskualdea nazioarteko arretaren fokuen azpian egotea olinpiar zuziari esker. Baina gu oraindik sufritzen ari gara. Eta noren erruz? Tepco konpainiaren erruz?», esplikatu du Hiromu Murata ebakuatuei laguntzeko sortutako Hidanren elkarteko presidentek.

«Fukushima ez dago Olinpiar Jokoengatik pozteko egoeran», nabarmendu du Miyako Kumamoto emakumeak, bera ere ebakuatuei laguntzeko elkarteko kidea. Horietako askori gehiegi kostatzen ari zaie etxeren bat aurkitzea.

2011ko martxoaren 11ko istripu nuklear larriaren ondoren, J-Village zentrala eta inguruak garbitzera joandako langileen egoitza nagusi bihurtu zuten: bertan aldatzen zuten arropa, atsedean hartzen zuten, jaten zuten... Milaka lagun pasatzen ziren bertatik egunean, benetako infernuan lanean aritu ondoren.

EBAKUAZIO AGINDUAK

J-Village izenekoak kirol instalazio izatera pasa ziren berriz iazko apirilean, hedabideetan oihartzun handia izan zuen ekitaldi baten bitartez. «J-Village garai batean izan zena izatera bueltatu da. Guretzat ikur bat da, berreraikuntzaren abiapuntua, oraindik martxan dagoen prozesu batekoa. Laguntza handia jasotzea espero dugu, energia berria, Olinpiar Jokoei esker», Masao Uchibori gobernadoreak orduan adierazi zuenez.

Fukushimako herritarrek agintariekin zenbait puntutan



Monjeak 2011n hildakoen aldeko erritu bat egiten, joan den asteazkenean Iwaki herriko hondartza batean. AFP

KORONABIRUSAK ZAPUZTU EGIN DU SHINZO ABEREN GOBERNUAREN PROPAGANDA ARIKETA

Japoniako agintariekin joan den asteazkenean omendu zituzten 2011ko tragedia ikaragarrian zendu ziren milaka lagunak, baina Shinzo Abe lehen ministroaren Gobernuak diseinaturik zuten propaganda ariketa erabat zapuztuta geratu zen, bazter guztietara iritsi den koronabirusaren eraginez.

Lehen ministroak berak eskatu zuen aurten 20.000 inguru biktimen aldeko hileta-ekitaldirik ez egiteko, birusaren hedapena ez laguntzeko asmoarekin. Abek eta beste goi kargu batzuek isilik egin zuten ekitalditxo bat bere bulegoan Tokio hiriburuan 14.46ak zirenean, 2011ko martxoaren 11ko ordu horretan izan baitzen sekulako tsunamia eragin zuen lurrikara; ondoren gertatuko zen inoiz izan den istripu nuklearrik larrienetako bat. Suntsitutako erreaktoreen inguruko lurraldea ebakatu behar izan zuten eta oraindik dozenaka mila lagun daude beren herrietara itzuli ezinik.

Gobernuak abian jarritako Berreraikitze Agentziak emandako datuen arabera, 47.700 herritar daude etxetik kanpo kutsadura erradioaktiboaren ondorioz (horietako 6.000, behin-behineko ostatueta). Hori bai, energia nuklearraren aurkako ekintzaileek uste dute askoz ere japoniar gehiago dagoela oraindik etxera bueltatu ezinik.

Agintariekin errepikatu dutenez, Fukushima istripu nuklearrak kaltetutako lurraldeen berreraikuntza «aro berri batean» sartu da egunotan, suntsitutako zentralaren inguruko eremu txiki batean ebakuazio aginduak kendu egin baitituzte. Gainera, gaur bertan berriz lanean jarriko dute eskualdeko trenbide zerbitzua, hondamendi nuklearra gertatu zenetik lehen aldiz.

Futaba herriko (zentrala hartzen duena, Okumarekin batera) eremu txiki bateko ebakuazio agindua kendu

zuen Gobernuak joan den astean. Helburua, hilaren 26an Japoniara Greziatik iritsiko den olinpiar zuziaren lehen kilometroetako giroa ahal den normalena izatea litzateke. «Futabako zati batean murrizketak kentzeko erabakia sinbolikoa da, herri osoaren %5ean baino eraginik ez duelako», esplikatu zuten nazioarteko berri agentziek. Herri horretan 7.700 lagun bizi ziren istripuak dena aldatu zuen arte. Kasurik onenean, oraindik urteak egin beharko dituzte kanpoan bizitzen, bertara lasaitasunez itzuli ahal izateko.

Okuma herriko ebakuazio agindua iaz kendu zuen Gobernuak, baina bertakoak ez daude konforme. «Kendu zuten, baina erradiazio mailak ez dira batere aldatu», esplikatu berri du Masumi Kowata zinegotziak. Erantsi du herritar askok uste dutela inoiz ez dutela beren etxeetara bueltatzeko aukerarik izango.



Fukushima Daiichiko zentral nuklearra joan den asteazkenean, Futaba herritik hartutako irudian. AFP

ebakuazio aginduak kendu izanak ere haserretu ditu, erradioaktibitatearen beldur baitira. Manifestari batzuek dosimetroak erakusten dituzte mobilizazioetan, erradioaktibitatea neurtzeko erabiltzen diren aparatuak alegia.

«Agintariak berriz bizitzeko moduan daudela esan duten guneetara itzultzerik ez dute nahi herritar batzuek, baina Estatuak eta prefeturak beste nonbait bizitzeko laguntzak kendu egiten dizkiete. Eta ebakuatu ez zituzten lagunak, baino erradiazioaren beldur ihes egin zutenak, kasu batzuetan okerrago daude», kontatu du Kumamotok.

Manifestariak kontatzen dituzten kasuak negargarriak dira. Hasiera batean, Estatuak ostatu eman zien familia pobre batzuei, ezer ordaindu be-

harrik izan gabe. Urte batzuk egoera horretan egin ondoren, alokairua exijitzen hasi ziren agintariak, eta gero bikoiztu egin zuten ordaindu beharreko kopurua; eta orain leku horietatik kanporatu egin nahi dituzte, eskatutako kopurua ordaintzen ez badute. «Bost familia geratzen zaizkigu egoera horretan: ostatu bilatzen laguntzen diegu, baina beraiekin harremanetan jartzea kos-

«9.000 milioi euro Olinpiar Jokoak egiteko gastatu dituen Estatu batek, ekonomia suspertzeko 108.000 milioi euro agintzen dituenak, 160 euro beharrezkoak al ditu?»

«Agintariak berriz bizitzeko moduan daudela esan duten guneetara itzultzerik ez dute nahi batzuek, baina Estatuak beste nonbait bizitzeko laguntzak kendu egiten dizkie»

tatzen ari zaigu», azaldu du prefeturako funtzionario batek. Bestelako egoera bat deskribatu du Kumamoto ekintzaileak: «Etxe-zulo zikin batzuk eskaintzen dizkiete, eta lan hori eskrupulurik gabeko agentziei ematen zaie».

«Ordaindu ezin duten alokairurik ez eskatu», gaineratu du ekintzaileak. «Horrela egingo dugu Finantza Ministerioak horrela nahi badu», erantzun du funtzionarioak. Komunikazioak ezinezkoa dirudi, bi aldeak gortuta baleude bezala ari baitira.

Kumamoto ekintzaileak oso hausnarketa egokia egin du, zenbakiak erabilia, galdera moduan: «9.000 milioi euro Olinpiar Jokoak egiteko gastatu dituen Estatu batek, ekonomia suspertzeko eta berreraikuntzari laguntzeko 108.000

milioi euro agintzen dituen Estatu batek, familia horiei eskatzen dieten 160 euroak beharrezkoak al ditu?».

Nazioarteko makina bat elkartek “Nuklearrik Gabeko Olinpiar Jokoak 2020” izeneko kanpaina abiarazi dute.

Ekologistak Martxan taldeak gogorarazi du Fukushima Daiichik «mehatxu izaten jarraitzen duela», istripua gertatu zenetik bederatzi urte bete direnean. Ekologistek nabarmendu dute hondakin eta isurketa erradioaktiboek eremuan bertan pilatuta jarraitzen dutela eta Tokioko agintariek herritarrak behartzen dituztela kutsatutako lekuetara itzultzeraz.

GREENPEACE TALDEAREN NEURKETA

Zenbatekoa da gaur egun da goen erradioaktibitatea? Japoniako Greenpeace talde ekologistak egin dituen neurketek diote Exekutiboak ontzat emandako maila baino 1.700 aldiz handiagoa dela. Shinzo Aberen Gobernuak, salaketa horri behar bezala erantzun beharrean, «kutsadura garbitzeko lan gehiago iragarri ditu, eta Olinpiar Jokoak egingo diren estadioetako erradiazio maila zaintzeko tresneria hobetu egingo duela azaldu du», ekologistek esplikatu dutenez.

Ekologistak Martxan taldeak gogorarazi du zentrolean istripuaren unean zegoen «ia erregai guztiak» bertan jarraitzen duela. Beraz, datozen urteetan ere hozte-sistemak lanean segitu beharko dute. Beraz, ingurumenaren aldeko ekintzaileek aurreikusten dute azkenean ur erradioaktiboa berriz itsasora jaurti beharko dutela, lehen ere egin izan duten moduan. «Shinzo Abek olinpiar garrarekin hondamendi nuklearra estali nahi du», diote.



Koronabirusa dela-eta maskara bat aurpegian duen gizona, Tokioko Estadio Nazionalaren aurretik pasatzen. Philip FONG | AFP

ASEGURU KONPAINIEK ZENBAT ARINDUKO LUKETE OLINPIAR JOKOAK AURTEN EZ EGITEAREN ERAGINA?

Gero eta zalantza gehiago eragiten ari da koronabirusaren hedapena japoniar agintarien artean, uztailearen 24an hastekoak diren Olinpiar Jokoen inguruan. Nazioarteko Olinpiar Batzordeak jakinarazi du aseguruak kontratatu dituztela Olinpiar Jokoak ezabatu beharrean izanez gero nolabait erantzuteko moduan izateko.

Olinpiar Jokoak egin gabe geratzeak sekulako galera ekonomikoak eragingo lituzke eta horrexegatik aipatu batzordea aseguru-entitateekin harremanetan jarri zen, 2004an Atenasen egin zen ekitaldiaz geroztik egin izan den moduan. Garai hartan Jacques Rogge belgikarra zen batzordeburua. Edonola ere, Olinpiar Jokoak uste bezala ez ateratzeko

aukeraren aurrean tankerako berme bat sinatu nahi izan zuten lehen antolatzaileak Moskukoak izan ziren, 1980an. Londresko Lloyd's etxearekin sinatu zuten kontratua, Patrick Vajda SIACI Saint Honore etxeko adituak France-Presse agentziari esplikatu dionez. Tokioren kasuan, Olinpiar Jokoak egiten ez badira babesza izango lukete antolatzaileek. Nazioarteko zenbait federaziok ere gauza bera egin dute dagoeneko, Vajdak azaldutakoaren arabera.

Swiss Re suitzar konpainia litzateke Tokioko ekitaldiarekin kontratua sinatu dutenetako bat. Izenpetutako dokumentuaren arabera, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak Olinpiar Jokoak ezabatzea erabaki dezake, «parte

hartzaileen segurtasuna erabat mehatxatuta baldin badago». Testuak eransten du Japoniako batzordeak ere hitzarmenaren bat egin behar duela «arrisku orotako» kalteak bere gain hartzeko. Agentziak galdetu die Tokioko antolatzaileei, xehetasun gehiago jakin nahian, baina «Olinpiar Jokoak ezabatzearen aukera aipatu ere ez dugu egin» esan diete.

«Arrisku guztiak daude aseguruan sartuta, espresuki kanpoan utzita daudenak kenduta, eta horiek ere sartzea erabaki daiteke –azaldu du hamarren bat ekitaldiren negoziazioetan esku hartu duen Vajdak–. Bi arrisku nagusi dira erantsi daitezkeenak: terrorismo arriskua eta gaixotasun kutsakorrei dagokiena».

Teorian, koronabirusaren eraginez Olinpiar Jokoak egin gabe geratuko balira (izurri horren berririk ez zen kontratua sinatu zenean), aseguruan sartuta egongo litzateke. Adituek egin dituzten lehendabiziko kalkuluen arabera, 5.000 milioi dolar galduko lirateke telebista eskubideekin, konpainia babesleekin eta sarreraren salmentarekin lotuta. Dirutza hori herrialdeetako olinpiar batzordeak, nazioarteko federazioak eta Nazioarteko Olinpiar Batzordea bera finantzatzeko baliatzen da.

Patrick Vajdak AFPri azaldu dio aseguru etxeek, asko jota, 1.500 milioi dolar emango luketela. Ondorioak oso gogorrak izango lirateke, horrenbestez, kirol mugimenduarentzat.

KATHERINE JOHNSON

NASAn genero eta arraza oztopo guztiak gainditu zituen emakume beltza

 **JENDARTEA** / joseangel.oria@gaur8.info

AEBetako neska beltz batek begi aurrean azaltzen zitzaizkion gauza guztiak kontatzen zituen haurtzaror: kalea zeharkatzeko urratsak, elizaraino ailegatzeko egin behar zituenak, zenbat plater garbitzen zituen, zeruan zenbat izar ikusten zituen... Ia 20 urte beteta zituen lehen aldiz beltza izateagatik baztertua sentitu zenean.

Herrialde arrazista hartan bigarren mailako herritar izanda ere, bidean topatu zituen oztopo guztiak gainditu eta punta-puntako matematikari bihurtu zen Katherine Johnson, Ilargira lehen gizakia eraman zuen espedizioko pieza garrantzitsuenetako bat izatera iritsiz. Otsailaren 24an hil zen, 101 urte zituela.

“Hidden Figures” (Izar ezkuak) 2016ko filmean, baztertua jaio arren matematikaren lekuri distiratsuenetara iritsi ziren emakume afroamerikarren historia kontatzen zaigu. Bada, Katherine Johnson da protagonista nagusia.

«Katherine Johnson 101 urte zituela hil egin dela jakin duenean, NASako familia osoa tristatu egin da», adierazi zuen Jim Bridenstine administratzaileak sare sozial batean. «AEBetako benetako heroi bat zen eta bere ondare aitzindaria ez da inoiz galduko».

Ia 100 urte bete behar izan zituen matematikariak, agintariek berak utzitako ondareari merezi zuen aitormena emateko. Barack Obama presidentek berak Askatasunaren Presidentearen Domina eman zion 2015ean eta handik hila-bete batzuetara, 2016an, bere diskurtso batean aipatu zuen

John Glenn astronauta estatubatuarrarentzat fidagarriagoak ziren emakume beltz batzuek egindako kalkuluak, 1960ko hamarkadako kalkulagailuek egindakoak baino. Haietako bat 101 urterekin hil da. Matematikarako sekulako trebetasuna zuen Katherine Johnsonek, Barack Obama presidente ohiak hamarkada askoko atzerapenarekin domina eman zion andreak.



emakumea, «mugak gainditzeko Ameriketako Estatu Batuetako joeraren adibide garbi» bezala aurkeztuz.

«Geure herrialdea eta geure agentzia ondratu duten bururik aipagarrienetakoa zen berea», adierazi zuen Charles Bolden NASako administratzaileak Obamak domina eman ondoren.

Hasiera hartako NASA agentzian “konputagailu” esaten zieten Katherine Johnson eta bere lagunei, emakume beltzak guztiak. Gaur egungoak bezalako ordenagailu aurreraturik ez zen garaian, kontuak egiteko sekulako erraztasuna zuten pertsonak deskribatzeko erabiltzen zuten “konputagailu” hitza. Baina garai hartako AEBetan ezkutututa edukitzen zituzten, emakume eta beltza izatea bi bekatu aldi berean egitea bezalakoa baitzen.

Hamarkadak pasa ziren liburu batek aurrena eta goian aipatutako pelikulak ondoren, emakumeon trebeziaren berri eman zuten arte. Ordura arte ia erabat ezkutututa zeuzkate la zirudien. Baina orain hiru urte, 2017ko Oscar sarien festan, matematikariak esku hartu zuen dokumentalik onenari ematen zaion saria aurkezteko, eta sekulako txalo zaparrada eraman zuen etxera.

Ezkutuan zituzten matematikari beltzak, baina haien ize-na ezaguna zen AEBetako astronauta batzuen artean, “The Washington Post” egunkariak kontatu zuenez. John Glennentzat ez zen ezezaguna, esaterako. 1962an hiru aldiz eman zuen Lurraren inguruan bira, espazioan bidaiatzen zuen lehen estatubatuarra bihurtuz (gauza bera egina zuen urtebete lehenago Juri Gagarin errusiarak). Hegaldi historiko hura egin aurretik, zera esan

omen zien ingeniarierei: «Zenbaki horiek berraztertze esan neskari». Emakumeak berak baieztatu zien kontua “The Washington Post”-eko kazetarierei: «Berak bazekien lehen ere nik kalkuluak eginak nituela eta nire lanaz fidatu zen».

Arrazakeriaren biktima garbia izan zen Katherine Johnson, baina berak esaten zuen lan gehiegi zeukala arrazakeriarekin kezkatzen hasteko. Garai hartan, 1950eko hamarkadako azken urteetan, AEBen eta Sobietar Batasunaren arteko espazioko lehia zen nagusi munduan, eta Glennek aipatutako “neskak” eta bere kideek egiten zituzten tripulaziorik gabeko suziriak jaurtitzeko, hegaldi probak egiteko eta hegazkinen segurtasun ikerketak egiteko beharrezkoak ziren kalkuluak, arkatzak, kalkulerregelak eta kalkulagailu mekanikoak erabilia. Imajinatzea bera ere kosta egiten da gaur egungo ordenagailuen munduan.

Baina emakume beltz haiek ez zuten lan egiten beste langileekin nahastuta, langile zuriekin alegia, beste instalazio batzuetan baizik. Lankide zurien komunera joatea ere debekatuta zuten eta bainugela propioak izaten zituzten. Gauza bera gertatzen zen jangelekin ere.

Margot Lee Shetterly “Hidden Figures” liburuaren egileak uste du Katherin Johnsonen ez zituela begiak ixten gizartearen zegoen arrazakeriaren aurrean. Egiten duen irakurketaren arabera, «gainontzeko beltz guztiek bezala berak ere bazekien bere kolorearengatik ordaindu beharreko zerga zein zen. Baina beste modu batean sentitzen zuen. Bere eguneroko bizitzan, erabat ezabatu zuen arrazakeriaren kontua».



Barack Obama garaioko AEBetako presidenteari Askatasunaren Presidenteari Domina eman zion Katherine Johnsoni 2015ean (goiko argazkia). Beste bi irudiak 1960ko hamarkadan hartutakoak dira. AFP

ZITUEN GAITASAUN APARTAK IKUSITA, IRAKASGAI BEREZIAK SORTU ZIZKION IRAKASLEAK

Katherine Johnson Mendebaldeko Virginiako White Sulphur Springs herrian jaio zen, 1918ko abuztuaren 26an. Txiki-txikitatik agertu zuen matematikarako erraztasun izugarria, baina, garai hartako bazterketaren eraginez, neska

beltz batek ezin zuen zortzigarren ikasturtetik aurrera ikasten jarraitu jaio zen konderrian. Gauzak horrela, Katherineren gurasoek Institute hirira alde egitea erabaki zuten, bertan baitzegoen ikasle beltzak onartzen zituen West Virginia Colored Institute zentroa. Beltza izanagatik beren seme-alabek hezkuntza onena jaso zezaten nahi zuten gurasoek eta lortu egin zutela esan behar.

Katherine 14 urterekin graduatu zen eta ondoren West Virginia State College zentroan jarraitu zituen goi mailako ikasketak. 18 urte bete zitueneko bazeuzkan dagoeneko Matematika eta Frantses tituluak. Garai hartan Angie Turner King matematikari eta kimikariaren babesa izan zuen. Baita W. W. Schiefflin Claytorena ere, AEBetan doktoretza lortu zuen hirugarren pertsona beltza. Claytor irakasleak geometria analitiko eta aeronautika irakasgaiak sortu zituen propio neska gaztearen gaitasun apartak ikusita. Ondoren Virginiako Marionera joan zen, irakasle moduan lanean aritzera.





Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Gorputz ziklikoak

Antzina, kulturen eta ohituretan hilekoak naturarekin zuen loturari erreparatzen zitzaion. Errituak egiten ziren, eta istorioak kontatzen ziren hilekoarekin harremana azalduz. Horrela, txiki-txikitik, hilekodunak beste ulermen bat zuen bere buruaz, bere gorputzaz eta hilekoaz. “Sakratu” gisa ulertzen zuten hilekoa, eta ez ezkutatu beharreko zerbait zikin edo gogaikarri gisa.

Gaur egun, Mendebaldeko herrialdeetan, orokorrean, hilekodunek ez diogu arreta jartzen zikloan zehar jasaten ditugun aldaketa emozional eta energetikoei. Askotan, hilekoaren faseen eraginpean ez bageunde bezala bizitzen saiatzen gara, eta horrek ongizatea galtzea eta potentzialtasun guztiak alferrik galtzea dakar. Hala da, hilekoaren zikloan etapa nahiko desberdinak ematen dira, eta, bakoitzean nola senti gaitzkeen ulertzeak eta ezagutzeak, gure gorputzarekiko komunikazioa hobetuko du: seinale gehiago identifikatzen eta hobeto interpretatzen jakingo dugu.

Hilekoaren zikloaren faseak lau dira. Gainera, bakoitzean, hormonen eta neurotransmisoreen ekoizpen jakin bat dago. Saihestezina da gure hormonetan ematen diren aldaketek plano emozionalean eragirik ez izatea. Hormonek gure garunaren oreka kimikoan eragiten dute, eta, beraz, gure gogo-aldartean zeharka eragiten dute.

Gorputza hilekoarekin dagoenean, estrogenoen jaitsiera bat ematen da. Fase hau barneko neguarekin lotzen da. Gogoeta-fasea da, bakardadearen eta “barrurantz joatearen” fasea. Kanpoarekiko interakzioa ere gogai-karria izan daiteke. Gorputza atse-den bila dabil, bere onera itzultzeko,

eta bizitasun handiz hurrengo faseari ekiteko. Askoz sentikorrago dago, eta, beraz, bereziki konekta dezake harekin eta hark helarazten dizkion mezuekin. Une aproposa da helburuak finkatu eta bideratzeko.

Hurrengo fasea folikulu-fasea da. Iraupena, pertsonatik pertsonara aldatzen da. Hilekoa hasten den egunean hasten da, eta obulua landatzean amaitzen da. Etapa honetan, estrogenoak sortzen dira. Fase hau, barneko udaberriarekin dator bat, berritzearekin, energia fisikoa handitzearekin. Buruko indarra da nagusi, pentsamenduak argiagoak dira eta emozioak egonkorragoak, bizi-energia puntu gorenean dago. Horregatik, egun aproposak dira proiektu berriekin hasteko, arriskuak hartzeko, elkarri zailak mantentzeko eta ohiturak aldatzeko. Gure buruaz segurua go baikaude.


Obulazioaren fasea energiaz eta bizitasunez betetako fasea da; adierazkorra, lagunkoia, enpatikoa eta distiratsua da eta barneko udarekin lotuta dago. Fase emankorra da alderdi guztietan: lan, familia zein proiektu pertsonalei bizia emateko.

Luteoa da lau garren fasea eta barruko udazkenarekin lotuta dago. Kontzen-

tratzeko gaitasuna eta memoria berare ere ahultzen dira. Une egokia da gure desioak, beharrak eta beldurrak aztertzeko, funtzionatzen ez duena joaten uzteko, limiteak jarri eta ezetz esateko, aukerak igartzeko eta ikuspegi berriak bilatzeko. Fase hau ezin hobea da norberaren hazkunde-prozesuan aurrera egiteko.

Ziklo menstrualaren fase bakoitza ezagutzeak, gure buruaz gehiago jakiten laguntzen digu. Hilekoaren zikloak aldarte asko ditu, dena ez da negatiboa, ikusten dugun ikuspegiaren arabera baizik. Pertsona kontziente egiten garenean eta gure zikloa ezagutzen dugunean, gure jarduera eta bizitza gure prozesu naturalekin harmonian kudeatzeko aukera irabaziko dugu. •

saioaaginako@gmail.com



{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Koronabirusa eta gu

Ezohiko gertaerek astindu gaituzte azken asteotan. Zaldibarreko luiziak, bi langile-ren heriotzaz gain, osasun larrialdi bat eta hondamendi ekologiko bat sortu zuen. Koronabirusak osasun larrialdi bat hamarraldietan ezagutu gabea eta beste bat soziala, atzoz geroztik milaka guraso baitago hurrengo hamabost egunetan haurrak nola zainduko dituzten asmatu ezinda. XXI. mendeko gizarte globalaren gaitzak biak, Mendebaldeak garatu duen metabolismo sozialaren etengabeko hazkundearen eta bizi eredu produktibistaren patologia.

Segurtasuna izango da ezbaierik gabe krisi-aro honetako gizarte-joerak markatuko dituen faktore nagusietako bat. Segurtasun falta hautematen dugu, mehatxu potentzialak antzematen ditugu, geure eguneroko bizitzak eta etorkizuneko proiektzioak baldintzatzeko gaitasuna izan dezaketena. Hain zuzen, geure bizitzen kalitatea eta egonkortasuna mehatxatu dezaketen faktoreak ugariak izango dira datozen urteetan. Askok berriak, orain arte ezagutu dugun gizartemoldean existitu ez direnak.

Klima larrialdia izango da horietako bat: migrazio-fluxuak ezagutuko ditugu, klimaren aldaketak sortutako hondamendietatik ihesean abiatuko den jendea. Beroaldiak, suteak, euriteak eta abar inoizko bortitzenak izango dira, eta geure ongizatean eragin zuzena izango dute. Digitalizazioaren ondoriozko segurtasun arazo berriak sortu zaizkigu dagoeneko. Zibersegurtasuna nola bermatu izango da erakunde publiko eta pribatuen erronka nagusietako bat.

Koronabirusak sortu duen egoera hau bada aukera bat oinarritzko gauzen inguruan hausnartzeko. Denbora gelditu agian ez baina geldotu egingo da datozen egunetan. Etxean ordu gehiago eman beharko ditugu, denbora nola bete pentsatu beharko dugu, futbol partidak eta bestelako ikuskizunak faltako zaizkigu, aspertzeko denbora izango dugu agian aspaldiko partez. Bada aukera bat bizimodu hipermoderno ez den beste zerbait esperimentatzeko.

Gogoeta ariketa potoloena gizarte gisa jarri digu orde. Oinarritzko beharrianak nola bermatu eta zaintza lanak nola antolatu ari da pentsatzen une honetan jende asko. Bat-batean, ia hilezko sentitzen ginen izaki teknologikook zeinen zaurgarriak garen ohartarazi gaitu. Eta, batez ere, ongizate sistemaren ahuldadeak jarri ditu agerian.

Ideologia neoliberalak mantra bat ezarri du: kontrol publikorik ez da behar, eta zerbitzuak eraginkorrako eskaintzen ditu merkatuak sektore publikoak baino. Etengabeko hazkunde ekonomikoa mantra nagusi eta ia bakar gisa daukan garapen eredu produktibista inposatu du, zaintza lanak familiarizatuz, eta, ondorioz, emakumeen bizkar gainean jarritik. Ideologia hori bera komunitate ehundurak suntsitzen ahalegintzen da: indibiduoak bakar-bakarrik nahi du merkatuaren aurrean, talde babesik gabe (ekonomiaren uberizazioa muturreko adierazpen gisa).

Bada, kontrol publikorik ezak mafia bat sortu du hondakinen kudeaketan eta bi langile dauzka zaborpean Zaldibarren egun. Eta zaintza lanen familiarizazioak krisi sozial bat sortu du koronabirusaren agerpenarekin.

Bada garaia garapen eredu bera auzitan jartzeko. Zeelanda Berriko gobernu laboristak barne produktu gordina baztertu eta ongizate adierazle berriak baliatuz diseinatu ditu azken aurrekontuak, adibidez. Ez da bakarria, geroz eta herrialde eta erakunde gehiago ari dira adierazten kostu-irabazien arabera epe laburreko ikuspegiaren gainetik berdintasuna, pertsonen eta ingurumenaren zaintza eta osasuna erdigunean jarriko dituzten ongizate adierazleen beharra.

Bukatu da politika ekonomiko baliagarri bakarra zergak jaitzi eta zerbitzuak pribatizatzea dela defenditzen zuen neoliberalismoaren arrakasta. Koronabirusak sektore publiko indartsu bat eta komunitate bizi bat behar ditugula jarri du agerian; biak ala biak ezinbesteko osagaiak erresilientzia komunitarioa garatu eta etorkizuneko larrialdi egoeretatik gutxien dute-nak gehiago kaltetu gabe atera ahal izateko. •

Oinarritzko beharrianak nola bermatu eta zaintza lanak nola antolatu ari da pentsatzen une honetan jende asko

KORONABIRUS BIRALA

Koronavirus berriaren transmisioa etetea da kezka eta erronka nagusia

Egunero ehunka orrialde, ehunka ordu betetzen ditu gai batek hedabideetan. Sare sozialak borborka jarri ditu eta kaleko zein etxeko solasetan nagusi da alde handiz. Koronabirusa da, ikusten ez den baina mundua hankaz gora jarri duen izaki mikroskopikoa.

Normala dirudi Covid-19 gaitzari hainbeste leku eta denbora eskaintzea; hala ere, informazio hori guztia zuzena eta egokia al da? Izan ere, informazioa beharrezkoa da, are gehiago fenomeno larri bat gertatzen denean, eskubidea izateaz gainera, oso garrantzitsua baita fenomeno horiei aurre egiteko.

GAITZA

Badakigu, edo badakigula uste dugu, hainbat gauza koronabirusaren gainean; hala ere, funtsezko informazioa datu eta esamesa zurrunbiloan urtuta geratzen da maiz. EHuko “Cam-

JENDARTEA / Xabier Izaga Gonzalez

Covid-19 gaitza eragin duen koronavirus berriak krisia ere eragin du mundu osoan. Pandemiari aurre egiteko informazioarekin batera, desinformazio handia ere zabaltzen ari da nonahi, inoiz baino gehiago, birusaren transmisioa eteteko erronka erraztu beharrean, oztopatu egiten duena.



Koronabirusari aurre egiteko gomendioak Gasteizko kaleetan. Raul BOGAJO | FOKU

pusa” aldizkarian Miren Basaras Mikrobiologia irakasleak argi asko azaltzen du zertan den gaixotasuna eta hari aurrea hartzeko modua “Covid-19 gaixotasunaren borroka, Osasun Publikorako erronka” artikuluan.

Adituek koronavirus berriaren gainean dakitena azaltzen hasten da: «Nahiz eta ez jakin zehatz-mehatz zein animaliatatik eta nola ailegatu den gizakiengana, guztiz argi dagoena da zoonosia dela, hau da, animalietatik etorritako birusa dela eta gizakiarengan kalte egiteko gai dela. (...) Bizi garen mundu gainpopulatu honetan hainbat faktoreren konbinazioak errazten du animalien birusek gizakiak mehatxatzea. Faktore horien barnean hauexek daude: ingurumeneko aldaketak, hala nola tenperaturaren igoera; gizaki, animalia eta ekosistemen partekatze hurbila munduko hainbat lurraldetan; edo munduko osasun-publiko mekanismo desegokiak».



Izurri beltzak kutsatutako gaixoak artatzen zituzten medikuen janzkera.

HISTORIAKO PANDEMIARIK SUNTSIGARRIENAK

Antzinatetik, ugari izan dira. Giza eta animalia osasunari dago-kionez ez ezik, ondorio nabarmenak izan dituzte arlo sozial, ekonomiko eta politikoan ere, historiaren bilakaeran eragin dutenak. Milioika bizilagun hil dituzte, batzuek eskualde eta are munduko biztanleria

ehuneko esanguratsu batean murrizteraino.

Lerrootan, suntsigarrien eta haien ondorioen zenbait datu.

ATENASKO IZURRIA

“Peloponesoko gerraren historia” lanean Tuzidides historialariak kontatu zuenez, Etiopian hasi eta Grezia Zaharrera zabaldu zen Atenasko izurri suntsitzailea K.a.

430. urtearen inguruan. Gerra betean, Atenasko hiri-estatuari eraso zion gaitzak, baita, neurri txikiagoan, Espartari eta ekialdeko Mediterraneoko inguru bati ere.

Perikles buru zutela, atenastarrak hiriko harresien atzean gorde ziren; Espartaren aurkako estrategiaren barruan, espartarren garraioa suntsitu eta hornidura moztan zieten aldi bere-

EHUko irakasleak dioenez, oso azkar lortu dute birusaren sekuentziazioa eta identifikazioa, eta diagnostikorako probak egitea. Horri esker, kontrolneurriak abiatu dira; esate baterako, milioika pertsona berrogeialdian jartzea. Gaitzaren hedapenaren gainean, hala dio: «Argi dagoena da XXI. mende honetan epidemiak modu azkarrago eta urrunago hedatzen direla aurreko mendeetan baino, bereziki globalizazioari eta aireko bidaiei esker».

Munduko bazter guztietan jakin zen Txinan egunez egun kutsatu kopuruak gora egiten zuela, eta gero Japonian, Hego Korean, Iranen, European... Beraz, jakina zen Euskal Herrira ere iritsiko zela, eta duela bi aste pasatxo iritsi zen, iritsi zenez.

ZURRUMURRUEN HEDAPEN BIRALA

Sortu zenetik, baina, Covid-19 gaitzaren gaineko benetako informazioarekin batera zurrumurru gehiago iritsi zaizkigu.



Miren Basaras, EHUko Mikrobiologia irakaslea. Aritz LOIOLA | FOKU

Adituen eta instituzioen informazioa baino lehenago zabalitzen baitira, birusa bera baino era biralagoan.

OME Osasunaren Mundu Erakundeak Covid-19ari aurre egiteko gomendioak eman ditu: «Norbera eta besteak babesteko modurik eraginkorrenak hauek dira: eskuak maiz garbitzea, ez-tul egitean ahoa besaurrearekin edo paperezko zapi batekin estaltzea eta ez-tul edo doministiku egiten duten pertsonengandik gutxienez metro bateko distantzian egotea». Baina gomendioak eman ez ezik, birusarekin batera hedatu diren hainbat zurrumurru gezurtatu ere behar izan ditu. Harrigarria? Hala dirudi, egin dituen ohararazpenak irakurrita: kokainak ez du koronabirus berritik babesten, baratzuriak jateak infekzioari aurre egiten laguntzen duen frogarik ez dago, ez-tul edo doministiku egiten duen lagun baten arnas tantatxoek ez dute zortzi metroko irismenik... «Zu-

rumurruen eta desinformazioaren aurkako borroka funtsezkoa da birus horren aurkako borrokan», esan zuen OMEko zuzendari nagusi Tedros Adhanom Ghebreyesusek.

Miren Basarasek lasaitasunerrako argudioak ematen ditu: «Egia da birus honek duen kutsakortasun-maila ez dela oso altua: pertsona kutsatu batek beste bizpahiru kutsatu ahal ditu (...) Gainera, klinikari dago-kionez, koronabirus berri hau kasu gehienetan sintomarik gabekoa da edo sintoma arinak sorrarazten ditu, eta bakarrik kasu gutxi batzuetan (%14) larriagoak direnak (pneumoniak, arnas ezintasunak...) eta bere heriotza-tasa ez da oso altua, %2-3koa».

Ez dio, ordea, ez dagoela zertan kezkatu, ezta hurrik eman ere: «Ezezaguna den guztiari beti errespetu bat izan behar zaio. Azaleratzen ari diren infekzioak edo infekzio emergenteak beti mehatxu dira giza eta

an. Hala ere, landa eremuko jende asko ere hirira sartu zen eta gaixotasuna kutsatzeko leku aproposa bihurtu zen Atenas.

Izurrite hark 50.000 eta 300.000 heriotza bitartean eragin omen zituen. Atenasen zeuden lagun herena hil zirela uste da. Tartean, soldadu asko, eta beste askok ihes egin zuten gaixotasunaren beldur. Perikles bera K.a. 429. urtean hil zen, izurriaren beste agerraldi batean. Historialari batzuen ustez, izurriak Atenasi gerra galarazi zion; edonola izanda ere, porrot haren ondorioz, mazedoniarren eta

ondoren erromatarren nagusitasunari bidea zabaldu zitzaion.

JUSTINIANOREN IZURRIA

Ekialdeko Erromatar Inperioari eragin zion Justinianoren izurriak; baita, Konstantinoplari ez ezik, Europako, Asiako eta Afrikako beste lurralde batzuei ere, 541. urte ingurutik. Pandemia behin eta berriz agertu zen Mediterraneoko portuen inguruan, 750. urtera arte gutxi gorabehera, eta bi mende haietan 25 eta 50 milioi lagun artean hil ziren munduan, VI. mendeko populazioaren %13 eta %26 artean.

Ustez izurri bubonikoak eragindako epidemia historiako izurrite handienetakotzat jo izan da. Izurria *Yersinia pestis* izeneko bakterioak sortu zuen, eta gaixotasunaren transmititzailea arratoi beltza izan zen.

Eskuarki kutsaduraren hasiera Afrikako ekialdean koka-tu izan dute. Aldiz, azkenaldian egindako azterketa genetikoaren arabera, anduiaren

jatorria Txinan egon zitekeen.

Europaren historian eragin handia izan zuen izurri hark. Bizantziar Inperioa Kartago eskualdeko bandaloekin, Italiako penintsulako ostrogodoekin eta Sasandar Inperioarekin gerran zegoen, eta izurritearen ondorioak hondamena izan ziren ekonomian, zergen diru-sarrerak murriztuta, merkataritza-jar-

duerak geldiarazita, nekazari-tza jardura zuten eremu handiak suntsituta eta gatazka larriak sortuta. Landa ingurunean eragindako despopulazioaren ondorioz, otarrain izurriteak izan ziren. Halaber, Bizantziar Inperioan eta Europako ekialdean izan ziren galera demografikoek VI. mendeko inbasio eslaviarrak erraztu zituzten.

IZURRI BELTZA

Historiako izurriterik suntsitzaileentzat joa, Eurasiari eragin zion Izurri Beltzak XIV. mendearen erdialdean. European bakarrik 25 milioi pertso-

Antzinetetik ugari izan dira pandemiak. Milioika lagun hil dituzte, batzuek eskualde eta are munduko biztanleria ehuneko esanguratsu batean murrizteraino

animalia osasunerako eta, aldi berean, egonkortasun sozialerako eta munduko ekonomiarako». Izan ere, joan den astean ELGE Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak munduko barne produktu gordina aurreikusitakoa baino askoz apalagoa izango dela aurreikusi zuen, beharbada hasiera batean uste zenaren erdia. Eta horrelakoetan ez da inoiz falta izaten edozein egoera baliatzeko prest dagoenik. Espainiako enpresarien buruak Madrilgo Gobernuak aurreko Lan Erreforma bertan behera uzteko asmoaren aurka egiteko aukera ikusi zuen, gaixotasunaren berri jakin baino lehen Lan Erreformen aldaketarekin bat etorri izan balitz bezala.

Kezkatzeko beste motibo bat birusaren genoma RNA motakoa izatea da. «Ikusi egin da mota horretako animalia birusak egun gutxitan %1 baino gehiago alda daitezkeela», nabarmendu du EHUKo irakasleak. Birusak mutazio ahalmena

du, horrenbestez; hala ere, dioenez, oraingoz behintzat, ez da aldatu.

JOERA MAKURRAK

Iritsi da gaixotasuna Euskal Herrira, iragarri moduan, eta uste-kabea iritsi balitz bezalako jokaerak ere sumatu dira, hala ere. Jendearen portaera normala da, itxuraz behintzat. Koronabirusa denon ahotan dago, baina ezin esan ikara sortu duenik. Edonola ere, farmazietan ez dago maskararik, nahiz eta, OMEk dioenez, kutsatuta ez daudenentzat ez duten balio.

Basarasek ere nabarmentzen du informazioaren garrantzia, eta birusaren inguruko krisia hasi zeneko aurreiritziak eta jarrerak makurrak gogorarazi ditu: «Azken bi hilabeteotan informazio asko izan dugu sare sozialetan, baina informazio eza ere egon da. Horrek xenofobia kanpainak bultzatu ditu, birusaren eta jatorrizko lurraldearen artean lurralde-madarikazio bat egongo balitz bezala.



Nekane Murga Osasun sailburua, koronabirusa gai zuen prentsaurreko batean. Endika PORTILLO | FOKU

«Azken bi hilabeteotan informazio asko izan dugu sare sozialetan, baina informazio eza ere egon da. Horrek xenofobia kanpainak bultzatu ditu»

Europara ailegatu denetik, beharbada beste ikuspegi batekin ikusten da. Argi dagoena da birusak eta mikroorganismoak oro har ez direla lurralde batekoak. Mikroorganismoek ez dute nazioen muga geografikorik errespetatzen eta, herrialde batean osasun arazo bat dagoenean, oso erraz hedatu daiteke munduko beste herrialdeetara, osasuna munduko herrialde guztien arazoa baita».

PANDEMIAREN BILAKAERA

Basarasek gaitz honen egoera ezberdinak aurreikusi daitezkeela dio bere artikuluan: «Egun, lehenengo egoeran gaude, euste-neurrien egoeraren barnean, zeinetan noizbehinkako kasu inportatuak ditugun eta ez den aurreikusten tokiko transmisio egonkor bat. Egoera hori gaindituko balitz, bigarren egoerara pasatuko ginateke eta identifikatu gabeko transmisio ugari izango genuke populazioan hainbat kasu detektatuz. Horrek populazioaren mugimen-

natik gora hil omen ziren, biztanleriaren heren bat gutxi gorabehera, eta, Asian eta Afrikan, 40 eta 60 artean.

Yersinia pestis bakterioaren aldaera batek eragindako agerrialdia izan zen, lehenengo Asian eta gero Europan, merkataritza ibilbideen bidez.

Izurrite haren ondorio sozialetan, nabarmentzeko modukoa da juduen aurkako jazarpena. Haiei leporatu zieten epidemia intoxikazioz eta putzuak pozoituz eragin izana. Ondorioz, Europako leku askotan pogrom bortitzen eskutik juduen komunitateak suntsitzen hasi ziren.

Biztanleriaren galera handiak ondorio ekonomiko nabarmenak izan zituen. Adibidez, Europan landutako eremua murriztu egin zen eta nekazaritzako ekoizpenak nabarmen egin zuen behera.

ESPAINIAKO GRIPEA

Beste gripe-epidemia batzuek ez bezala, gazteak eta heldu osasungarri askori eragin zien Espainiako gripeak, baita animaliei ere. Gaixotasuna 1918an agertu zen Ameriketako Estatu Batuetan, ustez, eta urte hartan mutazio bat edo mutazio-talde bat izan zuen, agente infekzioso hilgarria

bihurtu zuena; mutazioa 1918ko abuztuaren berretsi zuten Bresten, Ameriketako Estatu Batuetako tropa aliatuen erdiak Lehen Mundu Gerrara sartzen ziren portu frantsesean, hain zuzen. Gerra ez zen epidemiaren eragilea, baina parte hartu zuten tropen mugimendu masiboek hura hedatzea erraztu zuten. Gripeak, edonola ere, eragin handia izan zuen gerran.


Hildakoen kopurua 50 eta 100 milioi artekoa izan zen mundu osoan zehar. Infektatuen %10etik %20ra bitartean hil ziren, eta garai hartako munduko populazioaren he-



1918ko pandemiako hainbat gaixo, AEBetako instalazio militar batean.

dua murriztea ekarriko luke. Hirugarren egoera batean, transmisioa orokortu egingo litzateke, populazioaren gehiengoa kutsatua egonik. Krisi honen ondoren birusa desager daiteke, duela hamazazpi urte antzeko beste koronabirus batekin (SARS-CoV) gertatu zen moduan. Beste aukera bat litzateke birusa gure artean gelditzea urte-sasoiko patroia jarraituz, bere portaera beste koronabirus batzuenaren berdina izanik, udazkenean eta neguan kaltea eman eta beste sasoietan isilpean gelditu».

EHUko mikrobiologoak martxoaren 5ean idatzi zuen bere artikulua, Euskal Herriko lehen kasuak agertu berri. Astebete pasa joan da ordutik, eta bitartean kutsatuen kasuek nabarmen egin dute gora. Harrengana jo du GAUR8k eta dioenez, Hego Euskal Herrian lehenengo egoera gaingitu da. Hala ere, alarma egoera saihestu behar dela uste du, lagundu beharrean, oztopatu egiten baitu biru-



Balmasedan, Hego Euskal Herri osoan bezala, ikastetxeak itxita daude. Luis JAUREGIALTZO | FOKU

saren aurkako borroka. Herritar askok zenbait supermerkatutako apalategiak hustu dituzte eta horien argazkiak agertu dira sare sozialetan. «Horrek ez du laguntzen, jende askok hori ikustean berak ere elikagaiak pilatu beharra duela uste baitu», dio EHUko irakasleak.

ERRONKA, TRANSMISIOA ETETEA

Erronka transmisioa etetea dela dio behin eta berriz Basarasek. Hartarako, instituzioen ardura da informazio oso eta gardena ematea, eta hedabideen ardura informazio hori al bait argien zabaltzea, betiere zerbitzu publiko bat ematen ari diren kontzientziarekin eta ez audientzia handitzeko aukera baliatzeko asmoarekin. Eta gizarte osoaren erronka den aldetik, behintzat, gizarte osoaren ardura ere bada gomendioak betetzea.

Adituak, instituzio publikoak, hedabideak, herritarrek... bakoitzak pentsatu beharra dauka zer egin behar duen eta ondo egingen ari den.

rentsua infektatu zen. Epidemiaren ondorioz, munduko jardun ekonomikoak behea jo zuen eta migrazio mugimenduei nabarmen eragin zien.

BESTE BATZUK

Orain arte aipatuak izan ziren suntsigarrienak, baina beste epidemia eta pandemia asko ere izan dira gaur egun arte.

Baztanga edo nafarrerria antzinako gaixotasuna da. Historian zehar 300 milioi lagun baino gehiago hil dituela uste da. Espainiarrek Amerikara sartu zuten birusa eta herri indigenak sarraskitu zituen. Elgorria ere oso antzinakoa

da, eta milioika lagun hil ditu, 200 inguru.

Tifusa eskuarki intsektuen eta beste artropodo batzuen bidez transmititutako gaixotasuna da. Eskuarki, landa inguruneetan zabaldu da. Lau milioi lagun inguru hil ditu.

XIX. mendean bakterio batek eragindako gaitz bat mundu osoan zabaldu zen: kolera. Mende hartan eta hurrengoan zenbait agerraldi izan zituen eta ondorioz hiru milioi pertsona inguru hil ziren.

1957an, giza gripearen eta hegazti gripearen arteko konbinazio bat agertu zen Asiako hego-ekialdeko kostaldean,

eta azkar hedatu zen lurralde osoan, baita Australiara ere. Milioi bat heriotza eragin zituen. 1968an gripe haren mutazio bat agertu zen.

Hiesa eragiten duen GIB delakoa 1980ko hamarkadan zabaldu zen. Sistema immunologikoari erasotzen dio. Gaixotasun horrek ez du sendabiderik, baina dauden tratamenduek %33 murriztu dute gaixoen heriotza tasa. Gaur

Gaur egun arte hiesak gutxienez 25 milioi heriotza eragin ditu, eta haren beste ondorio nabarmenetakoa gizarteko sektore baten estigmatizazioa izan zen

egun arte gutxienez 25 milioi heriotza eragin ditu, eta haren beste ondorio nabarmenetakoa gizarteko sektore baten estigmatizazioa izan zen.

XXI. mendean agertu diren koronabirusetako bat Arnas Sindrome Akutua eta Larria izan zen. SARS delakoa 2003an agertu zen, Txinan, eta egungo koronabirusaren antzik handiena duena da, %80an haren berdina baita.

Oraingoak eragin duen antzeko ikara sortu zuen epidemia hark, batez ere Pekinen. Baina 773 heriotza baino ez zituen eragin, oraingoak baino askoz hilgarritasun handiagoa zuen arren. OMEk 8.845 kasu zenbatu zituen munduan, eta Europar izandakoetatik bat ere ez zen hilgarria izan.

Hegazti gripea, A gripea, Ebola, Ekialde Ertaineko koronabirusa... Pandemiei aurre egiteko gero eta baliabide gehiago dago, eta uste izatekoa da aurrekoetatik ikasi egin dela. Haren ondorioei aurre egiteko gaitasuna, ordea, ez da horren argia.



Raul BOGAJO | FOKU

IKUSMIRA

ALDAMIOA GOITIK BEHERA

Goitik behera erori da egunerokoa antolatzeko darabilkigun aldamia. Pieza guztiak lurrean botata. Haurren agendak hutsik, albisteak beteegiak, beldurak gainezka, egonezina jarioan... Aldamia altxatu beharko da, baina beste era batera. Betikoak ez du balio ez ditugulako eskura betiko piezak. Nerabeak protestan irakasleek ikasgelan baino lan gehiago emango dietelako, haurrak kezkatuta aspertu egingo direlako, gurasoak asmazioan puzzlea osatzeko, medikuntzan aditu bihurtu diren herri-tarrak supermerkatuan errietan nork harrapatuko komuneko paper gehiago... Dena hankaz gora, dena tokiz kanpo. Baina horrek ez du zertan erabat txarra izan behar, akaso lehengo toki hori ez zelako erabat ona. Akaso elkarrekin aspertuko gara eta partxisean jokatu dugu. Elkarri kontuak esan eta elkarri kontuak entzungo dizkiogu. Akaso elkarrekin egoteko modu berriak asmatu beharko ditugu eta gerta daiteke orain arteko manierak baino hobeak izatea. Auskalo.

Amagoia Mujika Telleria



EXPRAI

iRRITZIA:

SINFALTARIK GABE ETA ZIZTU BIZIAN HARTU BEHARREKO NEURRIAK					
DADO BAT HARTU ETA SORTU ITZAZU ZUREAK, ZUTABEZ-ZUTABE					
1	BIZIKI GOMENDATU	HAURREI:	KOMUNEAN	TXIRIBUELTAK EGITEA	JAIEGUNETAN
2	ZINEZ DEBEKATU	ZAHARREI:	GARRAIO PUBLIKOETAN	LAN EGITEA	DATOZEN BI ASTEOTAN
3	ZORROTZ AGINDU	MUNDU GUZTIARI:	ESKOLETAN EDO LANTOKIETAN	ESKUA EDO TA MUXU EMATEA	KORONABITXOA BERTSOTAN HASI ARTE
4	ZERA LIBRE UTZI	TURISTEI:	TOKI ITXIETAN	ARNASARI EUSTEA	ERREPUBLIKA SOZIALISTA ETA FEMINISTA LORTU ARTE
5	EZINBESTEAN ESKATU	SINTOMADUNEI:	ALFONBRAREN AZPIAN	BIDAIATZEA	GAUEZ BAKARRIK
6	BAIMENDU	ENPRESEI:	KALEAN	NEGAR EGITEA	TIPULA TIPULORUM



{ analisis } **Julen Orbegoza Terradillos** EHUko komunikazio publikoko irakaslea

Zaldibar, koronabirusa eta krisi-komunikazioa

Mezua zu zara”; edo “zu zara mezua”. Roger Ailesek 1988an idatzi zuen “You Are the Message: Secrets of the Master Communicators” liburua-ren ikasgai nagusia horixe da, hain justu: komunikatzen garenean, komunikazio ekintza horretarako aukeratzen ditugun hitzetatik harago, beste elementu askok osatzen dute la mezua. Alegia, seinaleak transmititzen ditugu, besteak beste, gure begiekin, aurpegiaren espresioarekin, gorputzaren mugimenduarekin, ahotsaren tonuarekin...

Ameriketako Estatu Batuetako estamentu profesional eta akademikoan parte hartzen duen jendeak erraztasuna du kontzeptu zientifiko konplikatuak modu errazean plazaratzeko. Hori onartu beharra dago, onartu beharra dagoen moduan pragmatismo hori kapitalismoaren mesedetan jarri dutela gehiengotan. Kasu honetan, Ailesek negozioa egin zuen ideia erraz hori aholkularitza profesionalera eramanda. Fox News sortzeaz gain, Reagan, Nixon eta Bushen komunikazio aholkularia izan zen premisa nagusi batekin: irudia da gakoa, gutariko bakoitza mezu ibiltariak gara, alegia, eta hartzailea etengabe ari gara bonbardatzen hitz hutsetik harago doazen sinbolo eta zeinuekin.

Komunikatzen garenean, aukeratzen ditugun hitzetatik harago, beste elementu askok osatzen dute mezua; begiekin, aurpegiaren espresioarekin, gorputzaren mugimenduarekin, ahotsaren tonuarekin, besteren artean, seinaleak transmititzen ditugu.

Hartara, gaur egungo komunikazio politikoan premisa horrek komunikazio ekimen ugari azaltzeko balio dezake. Alderdi politikoek, gobernuek, erakunde publikoek eta abarrek sobera dakite garaiotako herritarrak bereziki *inforikatuak* (informazioz gainezka, informazioa nonahi eta noiz-nahi) bizi garela eta nagusiki hizkuntza/hezkuntza bisuala gustatzen zaigula. Hala, *Homo audiobisual* inforikatu, Aileen aipatu ikuspuntu pragmatikoarekin batera, Marshall McLuhanen beste premisa famatu bat ere gailentzen da: “bitartekoa bera da mezua” hain justu (*The Medium is The Message*).

Beraz, politikari, agintari politiko edo buruzagiei zuzenean esan geniezaieke: «aizue, zuek zeuek zarete bitartekoa, alegia, zuek zarete alderdiak/erakunde publikoak plazaratu nahi duen mezua bera». Premisa hori bereziki aplikatu geniezaioke krisi-komunikazioari, jarraian ikusiko dugun moduan.

Hasteko, zer da krisi-komunikazioa? Bada, krisi sozial edo instituzional baten aurrean abian jartzen den komunikazio ofiziala. Eta noiz diogu krisi baten aurrean gaudela? Bada, aurreikusten ez genuen gertaera batek epe laburrean aldaketa bortitza ekartzen dienean modu transbertsalean jendarte edo herrialde bateko estamentu guztiei, sarri, gainera, ondorioak modu globalean nabaritzen direlarik.

Hala, hilabete eskasean bi krisi esanguratsu, ziurrenik historikoak, izan ditugu Euskal Herrian: batetik, Zaldibar-ko zaborte-garrena, eta, bestetik, Covid-19-aren hedapena. Biek sortu dute zalaparta eta biek behar izan dute erakunde publikoek izan beharko luke-ten krisi-komunikazioak exijitzen duen protokoloa. Bi krisi eta bi administrazio inplikatu dituzte bi krisi horiek, eta irakaspenak ateratzeko ere balio dute.

Ezbairik gabe, Espainiako Gobernuak Covid-19-aren kri-

siaren lehen fasean abileziaz jokatu du erabaki ustez erraz baina egiatan ausart batekin: Fernando Simon epidemiologoa (Larrialdien Koordinaziorako Zentroaren zuzendaria) kokatu du egunero prentsaurrekoa eman eta komunikabideekin harremana izateko. Hartara, puntu honetan komeni da Aileen eta McLuhanen premisak gogoraraztea (bitartekoa da mezua).

SIMONEN SINESGARRITASUNA

Zer dauka, bada, Simonek «*rollo ona*», konfiantza eta lasaitasuna» transmititzeko? Simonek ez omen du oratoria gidalibururik irakurri: atrila eusten du, fisikoa ez omen du larregi zaintzen, plantxarik egundo ikusi ez duten alkandora marradunak janzten ditu eta kotoi-bola txikidun jertseekin agertzen da; bixarra egunero moztu du baina bere patillek belarriak irensten dituzte; ahots urratua du, erretzaile itxura emanez, eta ez du agerraldietan kazetarien be-



Fernando Simon
epidemiologoa kokatu du
egunero prentsaren
aurrean Gobernu
espainolak. Erabaki ustez
erraza, baina ausarta.
Borja RUIZ DE LA BELLACASA | AFP

gietara edo kamerara begiratzeko joerarik.

Ahulgune horiek, ordea, indargune bihurtzen dira “egia” transmititzen ari den mezua hedatu nahi denean. Zer dago mundu honetan Simonen inperfekzio hori baino autenticismo perfektuagorik? Espainiako Gobernuak krisi honetan daukan helburu nagusia betetzeko baleko irudia da: autentikoa, egiazkoa, naturala, gardena, bere nortasunari fidela...

Herrialdea histeria kolektibo betean ez erortzea bada helburua (hondamendia litzatekeelako ehun produktiboarentzat, besteak beste), nola lortu dezakegu hori? Jendeak administrazioan konfiantza jartzea da modu bakarra, iturri ofizial eta autentiko bakar gisa identifikatzea lortuz (hartara, desinformazio saiakerak saihestuz). Eta zer behar dugu horretarako? Egia esaten ari garela transmititzea, etengabe, eta bitarteko guztietatik. Nor da pertsona aproposa horretarako? Arlo profesionaleko aditu bat (tamalez, salbuespenak salbuespen, politikariek jada lar urratuta dute sinesgarritasuna, kolektibo gisa) eta “autentikoa” dena. Alegia, Fernando Simon.

Zaldibarko zaborteziaren krisian ez da halakorik gertatu eta bai Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Jaurlaritzaren bozeramaileek behin baino

gehiagotan onartu dute kontaktuz zehatza sortu eta komunikatzeko arazo bat izan dutela.

EMOZIO SOZIAL ETA KOLEKTIBOAK

Besteak beste, bozeramaile bakar eta “autentiko” hori ez da inondik agertu. Jatorri eta ardura ezberdineko hamaika ahots entzun izan ditugu, mezu bateraturik gabe: sailburuak, lehendakaria (krispazio tonuan), arlo ezberdinetako teknikariak, askotariko kargudun politikoak eta alderdi ezberdinetakoak (Lehendakaritzako bozeramaileak, herri bateko eta besteko alkateak, ahaldun nagusiak...). Ondorioa: anabasa eta sinesgarritasuna urratuta.

Kontakizuna sortzetik harago doan kontua da, ordea, krisi-komunikazioa. Berez, garrantzitsuena da, kontakizuna sortzea baino, herritarrek uneen uneko eta bitarteko ezberdinetatik (sare sozialetako interakzioen bitartez ere) sortzen ari diren

kontakizuna zein den detektatzea eta horrekin bat egitea. Hau da, termometroa emozio sozial eta kolektiboetan jarri behar da, epe motzeko interes partidistarekin sortzen diren narratiba partidistak alboratuta.

Krisi sozialetan emozioek, hain justu, laguntzen digute egoerak interpretatzen eta neurriak hartzen. Komunikazio publikoaren zeregina gero eta gehiago delako emozio publiko eta kolektiboaren kudeaketa. Hartara, esan genezake emozioen kudeaketaren ikuspegitik Zaldibarko krisiaren kudeaketan ere egon dela akatsik: bat, sare sozialetan herritarrek sortzen duten errelatoa lehendakariak gutxiestea; bi, herritar askoren larritasun egoera betean agintari goren bat mendira joatea eta publiko egitea; hiru, egiazkoa ez zen informazioa ematea edo behinik behin informazio guztia ez argitaratzea; lau, herritarrekin zuzenean ba-

tzartzeko egun larregi itxarotea; bost, desagertutako langileen familiek sentitu duten babes eta komunikazio falta...

Bada, krisi-komunikazioaren ikuspegitik bi irakaspen uzten dizkigute Zaldibarrek eta Covid-19-ak: informazio hutsetik harago, gobernu batek aukeratzen duen bitartekoa bera dela mezua, alde batetik, eta, bestetik, kolektibo bihurtzen diren emozio pertsonalak neurtu eta kudeatzea ezinbestekoa dela.

Bukatzeke, hurrengo krisi egoeretarako dekalogo bat:

- 1.- Krisia ez gutxietsi, etorri, etorriko baita.
- 2.- Krisia aukera gisa baliatu.
- 3.- Albait arinen, komunikazioaren helburua zehaztu.
- 4.- Bozeramaile nagusi bat izendatu eta agerraldietarako pautak sortu.
- 5.- Gardentasuna etengabe transmititu.
- 6.- Autokritika egin, erroreak onartu, erakundea humanizatu.
- 7.- Emozio pertsonal eta kolektiboetako transzendentzia aitortu.
- 8.- Akzio edo neurri administrazio eta politikoak zehaztu eta argitaratu.
- 9.- Sestra politikoetan erori gabe, alderdikeria baztertu.
- 10.- Krisi agertokian sortzen diren aldaketei erreparatuta, estrategia etengabe birmoldatu.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Jaso dugu lekukoa, Joxe Mari!


Nongoa zara? galdetuta, «Azkaraten (Nafarroa) jaio, Legazpira (Gipuzkoa) joan eta Hernanin (Gipuzkoa) bizi. Euskal Herrikoa», erantzuten zuen, bala-bala. Eta hori zen bere sorterria, eragin esparrua, ametsen orubea, ekintzaren helburua: Euskal Herria.

Adinak nahastuta ziharduena Telleriarteko eskola txikia; Huescako kimika ikasketak; Patricio Echeverriako laborategia; Haztegi ikastolako maisu lana; Iratxe (Nafarroa) lehen euskal udalekuean begirale; euskara berrikasle Euban (Bizkaia), Karmele Aierberekin... Bizitako bakoitzak utzi zion arrastoa eta guztiekin zizelkatu zuen bere asmoa eta ekintza.

Ezkerrekoa eta abertzalea zelako iritsi zen politikara, baze-kielako Euskal Herriak, euskarak, hezkuntzak aurrera egin zezaten politikan ere eragin behar zela. Sindikalgintza etorri zen gero. LAB Irakaskuntza sortzen aritu zen, Gipuzkoako Ikastoletako ardura hartuta. Ikastolei inposatutako publiko-pribatu erabakia bete-betean, ikastolaz ikastola ibili zen publikoa bai baina zer publiko mota atakan murgilduta. Zatike-ta horrek markatu zuen: hori eta publikotasunaren izaera izan ziren berekin zeramatzan bi arantzak.

Sistemak antolatu zuen zatiketaren biharamunean bere ametsari forma ematen hasi zen: denentzat izango zen gunea sortu nahi zuen. Biziraupen aukera eskasen iragarpen guztien gainetik, Hik Hasi jarri zuen martxan inolako dirulaguntzarik gabe "Non dago hutsunea, zer falta da", lelo hartuta. Aldizkariaren atzetik etorri ziren, baliabideen gidak, topaketak, jardunaldiak, bidaia pedagogikoak, monografi-koak, ikus-entzunekoak, herrietako ondarea ezagutzeko unitate didaktikoak, hezkuntza goraipamenak, zinema... Unibertso oso bat ehunduz joan zen hezkuntzatik eta euskaratik.

Aparteko konfiantza zuen herritarrengan. Berdin eseriko zen Hezkuntza kontseilariarekin bere bulegoan edota edozein plazako lurrean gazteekin Gaztetxeak antolatutako hitzaldian. Gaitasun aparta zuen jendarterako eta herritarren ekimenerako.



Joxe Mari Auzmendi duela aste batzuk zendu zen. HIK HASI

Zatiketek zatitu zioten bihotza: sareen, lurralde-en, euskaldunen artekoak.

Hala ere, erori bakoitzean altxatu zen: Administrazioak dirulaguntzak kendu zizkionean, Espainiako poliziak kazetari bat bahitu zionean, gaixotasunak osasuna ostutakoan... azken hartsa hartu bitartean. Irribarretsu, ez zen errenditu inoren eta ezeren aurrean.

Hik Hasik ez ditu alferrik ia 25 urte. Egun bakoitzean egin duen harreman bakoitzetik ikaspena jaso du Joxe Mari. Haurra eta pertsona erdigunean eta iparrorratz jarri eta betitik defendatu zuen udalerrien egitekoari eutsi dio, tinko. Ildo horri jarraiki biribildu zuen bere

idea: "autonomian dago gakoa". Herritar burujabeak nahi ziotuen, balioetan heziak.

Eskolaren izaeraren korapiloa askatu gabe joan da. «Batzuentzat badugu eskola nazionala, besteentzat egiteke dago», zioen. Eskola tradizionalaren eta modernoaren eztabaida zaharraren gainetik, «ikasleak herritar autonomo, kritiko, irizpidedun, maitale, komunitatekide, errespetuzko eta identitadedun izateko nola eragin da gaia, ahaztu gabe sustrairik eta ziurtasunik gabeko jendartean bizi garela, nazio gutxiagotu, parekidetasun gabea eta haur-pertsonaren hainbat eskubide errespetatzeke. Erronka ederra, e!», esaten zigun.

Azkenaldian, marrazten ari den panoramaren aurrean, «burua argi dugu eta umil eta herritarren onurari begira jotzen dugu edo egoera zeharo gaiztotzen joango da. Botereak bere joko eremua prestatzen du eta herritarrok muturka amaitzen dugu. Gudak horrela hasten dira», zioen. Eta zekielako eta bizi izan zuelako zioen.

Hartu dugu zure lekukoa: «Publikotasunaz hitz egiterakoan, zer herri mota, jendarte, herritar, pertsona irudikatzen dugun hausnartu eta horrekin koherente izan behar du jendartearen antolaketa, eta, ondorioz, egitura administratiboa. Herritarra parte hartzailea izatea nahi badugu, hori horrela izaten lagunduko duen antolaketa izan beharko dugu, ezta? Izan gaitezen kontsekuente eta egin dezagun denontzako izango den herria denon artean».

Mila esker, Joxe Mari, bidaia zoriontsua gerta dakizula... Sentitu, pentsatu, ekin, denok elkarrekin! •

{ koaderno } Iker Barandiaran

Beldurra

Beldurak badauka gaitasun bat oso-oso gutxi daukatena. Gai da pertsonak geldiarazteko, paralizatzeko, beraien txarre-
na ateratzeko, norabide batera edo bestera begiratzeko jartzeko, egoera hotz edo arrazional batean hartuko ez liratekeen erabaki, jarrera edo pentsamoldeak hartzeko.

Eta hori guztia askotan –gehienetan esango nuke– ezjakintasunarekin lotuta dago. Beldurra ematen digu ezagutzen ez dugunak, desberdina denak eta –norbaitek helburu jakin batzuekin sustatutako– mamuak biderkatu egiten dira. Ez dakigunean ondo zer den, nondik datorren, zer jatorri duen, txarrenean pentsatzen dugu ez gaudelako eroso, mesfidantza pizten zaigulako barren-barrenean. Gero eta indibidualistagoak, berekoiagoak garen heinean, aurreiritzi txar gehiago pizten zaizkigu ezagutzen ez dugunaren aurrean. Horregatik, halako emaitza boteretsuak lortzen dituelako erabili izan ohi da beti beldurra helburu jakinetarako. Zerrenda amaigabea da eta gero eta eraginkorragoa da, gainera.

Informatuago gaudela uste dugun honetan, informazioa bera –pausatua, ahalik eta inpartzialena, zergatiak eta jatorriak eta batez ere testuingurua ondo azaltzen duena– eskuratu beharrean, titular uholdea jasotzen dugu zabalik ditugun kanal ugarietan; eta ia beti norabide edo mezu berbera behin eta berriro errepikatuta. Ezin kontrakoa aztertu, ezin mezu hori ezbaian jarri, eta inguru guztia “kutsatuta” edo sinistuta izanik erresistentzia nahikorik gabe, errenditu egiten zara. Oso zaila da korrontearen kontran igeri egitea eta are zailagoa beste batzuk ere helmugaren okerreko norabideaz ohartaraztea.

Horixe bera gertatzen da hain txertatuta dugun arrazakeriarekin. Ezjakintasunak, beldurak eta oso boteretsuak diren interesek gutako askok jarrera gupidagabe eta arriskutsua sinistuta izatea lortu dute.

Denok dakigu nor ari den baliatzen egoeraz aberas-
teko eta botere gehiago pilatzeko gainontzekook gero

eta estuago bizi garen bitartean. Badakigu horrela dela, baina, hala ere, lortu dute guk txarrago bizi diren horietan fokua jartzea. Eta, ondorioz, baita guk enpatia eza, ezintasuna, amorrua eta bazterkeria beraiegan ezartzea ere. Gainean dauden aurrean errebelatu beharrean, gure indarrak azpiagokoen kontra egiteko baliatzen ditugu.

Eta oraintxe munduan zehar zabaltzen ari den birus berri honekin sinesmen osoa daukat norbaitek zerbaitetarako sortu eta zabaldu duela. Ez naiz teoria konspiratzaileen zalea, baina jada aspaldi ez dut kasualitateetan sinisten.

Badirudi berez hilkorra baino kutsakorra dela; horretan datza bere arrisku eta potentzialitate handiena. Ez dut ukatuko gauza asko desorekatu eta zailduko dituela, eta baliteke martxa honetan laster gu geu ere kutsatuak izatea. Baina ezin da ukatu birus honekin gertatzen ari denak ez daukala orain arte bizi izan dudan ezerekin parekorik.

Sinistuta nago munduan zabaltzen ari den birus berria norbaitek zerbaitetarako sortu eta zabaldu duela. Ez naiz teoria konspiratzaileen zalea, baina jada aspaldi ez dut kasualitateetan sinisten

Jakina da artaldean bezala funtzionatzen dugula baina ez dut inoiz gure artean halako eragina izan duen beste ezer ezagutu. Ez dugu beste ezertaz hitz egiten, ez dago besterik, dena hartu du bere eraginpean. Eta birusak berak eta horren kutsakortasunak baino gehiago kezkatzen nau beste edozein gai edo gauza debate publikotik eta egunerokotik ezabatu izana. Zer ari da gertatzen? Hedabideen eta interesatutako mezuen hartzaile soil eta erabat manipulatutako gara dagoeneko. Mugarri handi bat ezarri dute, eta esango nuke horren gainetik pasatzeko gaitasunik edo adorerik ez daukagula. Edo bai? •

Ia hiru hamarkadako ibilbidea egin du Asier Larrinaga bilbotarrak Euskal Telebistan hizkuntza teknikari. Egun bertako Euskara Zerbitzuaren ardura duna da. Ondo ezagutzen du, beraz, euskal telebista publikoak euskararen arloan egin duen lana. Hain zuzen ere, lan hori aztertzea zuen helburu iaz aurkeztu zuen tesiak. Hura egiteko, euskararen normalizazioa aztertu behar izan zuen eta, tesiaren izenburuari buelta emanda, “Euskararen normalizazioa: ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra” liburu

aurkeztu zuen joan den otsailean.

Tesitik liburura. Zertan dira desberdinak? Liburua, dibulgatiboagoa?

Ez, ez. Tesia eta liburua gauza bera dira funtsean. Izenburua aldatuta dago; tesiaren kasuan “Euskal Telebistaren sorrera, garapena eta funtzioa euskararen normalizazioaren testuinguruan” ipini nion eta liburuari “Euskararen normalizazioa: ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra”. Testuak izenburuari buelta ematen dio zeren tesian nire interesa Euskal Telebistak euskararen arloan egin duen lana

aztertzea izan zen, hori zen helburua; baina, horretaz gain, euskararen normalizazioa osorik aztertu behar izan nuen, Euskal Telebistak egin duen lana testuinguru horretan kokatzeko. Orduan, esan dezagun bai tesian bai liburuan zutabe handi bi daudela: euskararen normalizazioaren ikuspegi osoa 1960ko hamarkadako azken urteetatik hona, eta, beste alde batetik, Euskal Telebistak testuinguru horretan, eremu horretan, egin duen lana.

Badago beste kontu bat. Tesia 2019ko abenduko datuekin itxi nuen eta EHUK eta UEUK argitaratu duten liburuan testua eguneratuta dago, datu

«70eko hamarkadan euskarazko hedabide idatziek garrantzi handia izan zuten normalizazioan, bai ‘Zeruko Argia’-k, bai ‘Anaitasuna’-k... Horrek guztiak Euskal Telebistaren sorrerarako, esan dezagun testuinguru bat edo ohantze moduko bat sortu zuen»


berriak sartuta. Testua osorik irakurri nuen berriz eta pasarte ilunenak edo ulertzeko zailenak iruditu zitzaizkidanak berridatzi egin nituen. Eta, bestalde, aldaketa estilistiko txiki bat egin nuen. Tesian nire ahotik egiten nuen hitz, eta liburuan modu neutro edo inpertsonalean egin dut.

60ko hamarkadan ez zegoen Euskal Telebista, jakina. Beraz, ondorengo garaiarekiko aldea ere aztertuko zenuen.

Bai. Baina nire azterketaren ardatza Euskal Telebista da eta horrek eskatzen du hedabideek euskararen normalizazioan izan duten rola aztertzea. Egia da 60ko hamarkadan euskarazko telebistarik ez zegoela, baina bai beste hedabide batzuk. Idatziak hamarkada batzuk lehenagokoak dira, 50ko hamarkadan irratia ere hasi zen euskaraz. 70eko hamarkadan euskarazko hedabide idatziek garrantzi handia izan zuten normalizazioan, bai “Zeruko Argia”-k, bai “Anaitasuna”-k... Horrek guztiak Euskal Telebistaren sorrerarako, esan dezagun testuinguru bat edo ohantze moduko bat sortu zuen eta, bai, Euskal Telebista euskarazko lehenengo telebista izan zen, baina aurrekari batzuk izan ziren, eta hori ere aintzat hartu dut.

Eta beste kontutxo bat. 70eko hamarkadan Euskal Telebistarik ez zen izan, baina bai euskarazko telebista saioak, TVE Espainiako telebista publikoak astean behin-edo eskaintzen zuena eta Frantziako TF1 kateak ere izan zuen horrelako saio bat. Hori guztia aztertu beharra zegoen, bakoitzak zer leku izan duen.

Ikertzaile askok hedabideei hizkuntzaren normalizazio-



Aritz LOIOLA | FOKU

«Euskara batua idatzirako, literaturarako pentsatu zen, eta oso urte gutxiren buruan Euskal Telebistak eta Euskadi Irratiak ahotsa ipini zioten»

rako garrantzi handirik eman ez izanak arreta eman zizula diozu.

Bai, baina “ikertzaile” hitza oso orokorra da. Jendeak, adituek ere bai, baina ez hizkuntzalaritzan adituek, esaten zuten telebista garrantzitsua dela hizkuntza gutxituen sustapenerako eta euskararen kasuan ere jakintzat ematen zen. Kontua da hizkuntzalaritzan eta batez ere soziolinguistikari ari ziren adituek ez zutela uste hori; orduan, kontraesan moduko bat zegoen: jende gehienaren iritzian hedabideak funtsezkoak ziren hizkuntza gutxituak sustatzeko eta normalizatzeko, baina arlo horretan ari ziren adituek ez zuten iritzi bera. Nire azterketaren alde teorikoan landu beharreko puntu bat izan da hori, nola gaingitu den kontraesan hori, soziolinguistikako adituek hedabideei hain garrantzi gutxi ematea hizkuntzaren sustapenean. Kontua da 2000ko hamarkadatik aurrera beste ikerketa ildo batzuk zabaldu zirela eta ildo berri horietan ari diren ikertzaileek bai jotzen dute garrantzitsutzat hizkuntza gutxituen normalizazioan hizkuntza gutxituko hedabideen funtzioa.

Eta zer eragin izan du Euskal Telebistak, labor esanda?

Labur ezin daiteke esan [irribarrere], baina... Hizkuntzaren normalizazioak hiru alderdi ditu nagusiki: corpusa, estatusa eta jabekuntza, eta nire ikerketaren ondorio nagusia da Euskal Telebistak hiruretan izan duela eta oraindik ere hiruretan duela garrantzi handia.

Erreferentzia da?

Bai, erreferentzia gauza askotan. Corpusaren kasuan, esate baterako, eta corpusa hizkun-

tza bera da, hizkuntzaren egi-turak, hitzak... oso ekarpen garrantzitsua egin du Euskal Telebistak, euskara batuari ahotsa eta doinua ipini dizkiolako. Euskara batua 1960ko hamarkadan sortu eta lantzen hasi zenean eta 1970eko hamarkadan arauak eman zirenean, idatzirako arauak ziren, euskara batua idatzirako, literaturarako pentsatu zen, eta, oso urte gutxiren buruan, 1982an, Euskal Telebista sortu zenean, halako batean idatzirako pentsatuta zegoen eredu hori irratira eta telebistara eramane zen, uhinetara eramane zen eta ahotsa jarri zitzaion. Eta nork ipini zion ahotsa? Euskal Telebistak eta Euskadi Irratiak. Biek batera. Handik urte batzuetara, 1998an, Euskaltzaindiak euskararen ahoskeraren araua eman zuenean, arau horren oinarri nagusia Euskal Telebistan eta Euskadi Irratian landutako eredia izan zen. Tartean gu ere ibili ginen Euskaltzaindiko jendearekin batera araua lantzen. Horren funtsa edo oinarria urte luzez Euskal Telebistak eta Euskadi Irratiak landutako eredia izan da.

Erreferentzialtasun horren esparruan gauza gehiago dago; esate baterako, euskara informatiboa Euskal Telebistan eta Euskadi Irratian asmatu da. Egia da euskarazko informazioa lehendik existitu dela, esan dugun bezala, baina kontua da eguneroko informazioari, aktualitatearen jarraipenari ez ziotela horrenbesteko jaramonik egiten. 1970eko hamarkadan “Argia”-k eta “Anaitasuna”-k garrantzi handia izan zuten, baina gehiago ziren erreportajeak, iritzi artikulak, eta, Euskal Telebista eta Euskadi Irratia etorri zirenean, orduan hasi ginen eus-

karaz aktualitatea eta eguneroko informazioa lantzen, eta lanketa horretarako eredu informatibo bat asmatu behar izan zen. Hori da Euskal Telebistak egin zuen ekarpen handietako bat.

Euskarak, beste edozein hizkuntzak bezala, informatzeko, entretenitzeko, umorea egiteko balio du; pellokeria dirudi, erakutsi beharrik ez dagoen zerbait...

Baina erakutsi beharra zegoen, eta Euskal Telebistak lan handia egin du alde horretatik. Hori hizkuntzaren estatusa izango litzateke, gizartean duen irudia, prestigioa... Gizarteari emandako zerbitzua izanda, hori erakutsi behar izan da, euskarak horretarako guztirako balio zuela, informatzeko, entretenitzeko... Eta, entretenimendu horren barruan, era guztietako generotarako balio zuela, umorerako, gizarte gaietako magazinetak... Hori da Euskal Telebistak erakutsi duena. Alde horretatik, euskararen prestigioari, euskararen estatusari ekarpen garrantzitsua egin dio.

Umorea aipatuta, kritika asko entzun dituzue zenbait programatan tokiko hizkerak barra-barra erabiltzen direlako?

Euskal Telebista hasi zenean euskara batua aukeratu zen, baita Euskadi Irratirako ere, eta lehenengo urteetan hori besterik ez zen entzun. Gero, gogoeta prozesu bat izan zen. “Sorginen Laratza” esan dezagun izan zela inflexio puntua. Bertan esketx batzuk egiten hasi ziren, umorezko esketxak, eta horietan beste euskara mota batzuk sartzen hasi ziren, euskalkiak-eta. Nahita egin zen aukera hori, pentsa-

ASIER LARRINAGA

EITB-KO EUSKARA ZERBITZUKO BURUA


laz aurkeztu zuen tesian Euskal Telebistak euskararen arloan egin duen lana aztertu zuen. Oraindik orain, ildo beretik, «Euskararen normalizazioa: ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra» liburua argitaratu du EHUren eta UEUren eskutik.

Xabier Izaga Gonzalez

tu zen bazela garaia EiTbN beste euskara mota batzuk ere entzuteko, eta ikusi zen, esate baterako, pertsonaien karakterizazioan euskalkia erabiltzea egokia dela. Bide bat urratzen hasi zen. Sasoi batean horretara mugatuta egon da euskalkien erabilera ETBren barruan, baina pentsatzen dugu gonbidatuek eta, zalantzarik ez, kaleko jendeak bakoitzak berea egiten duenez, beste urrats batzuk gehiago egin daitezkeela. Esatariek eta EiTbN izenean egiten dutenek, jakina, batuan egin behar dute, baina beste kolaboratzaile batzuk aritzen direnean, uste dugu egokia dela euskalkian egitea hala nahi badute.

Zu 1991tik zaude ETBren Euskara Zerbitzuan; beraz, ondo ezagutzen duzu lan hori, bertan parte hartu duzulako, eta horixe izan duzu aztergai.

Bai. Ni, egia esateko, enpresako langilea naiz. Euskara Zerbitzuaren arduradun, baina hori baino lehenago bertako hizkuntza teknikaria, ibilbide luzea egin duena. Ikerketan jasotzen ditudan datu asko eta ematen ditudan informazio asko bertatik bertara eza-gutu ditut; gehienetan, hartu diren erabakien inguruan ibili naiz lantaldeetan. Egia da ikerketa batean beharbada objektibotasuna galtzeko arriskua sortzen duen faktore bat izan litekeela hori, eta alde horretatik ahalegindu naiz distantzia hartzen eta nire pasioak-eta alde batera uzten. Horretan, zalantzarik ez, asko eskertu behar diet tesiaren zuzendari izan ditudanei. Objektibotasuna zaintzen asko lagundu didate zuzendari izan ditudanak, Igone Zabalak eta Agurtzane Elorduik. Beste



Aritz LOIOLA | FOKU

gauza askotan ere lagundu didate, baina horretan ere bai, asko.

EiTbN eraginari dagokionez, zer sektoretan izan du edo du eragin handien, sektore batzuetan beste batzuetan baino eragin handiagoa baldin badu; esate baterako, haurrengan, gazteengan...?

EiTbN erabaki estrategiko bat hartu zuen orain dela urte mordoak, arreta gunearen erdian haurrak eta gazteak ipintzea. Gauza bategatik:

hezkuntza sistemaren bitartez belaunaldi berriak ia osorik euskalduntzen zirelako eta euskararen ezagutzaren alde-tik belaunaldi berrietan euskaldun gehiago zeudelako beste belaunaldi batzuetan baino. Baina, horrez gainera, EiTb taldeak badauzka besteak beste helburu pedagogiko batzuk ere, adibidez, hezkuntza sistemaren osagarri izatea. Alde horretatik, bat zetozen helburu biak, euskararen sustapena eta hezkuntza sistemaren osagarri izatea. Ho-

rregatik ipini da arreta haur eta gazteetan.

Horrek zer ekarri du? Hainbeste programa sortu eta aire-ratu direla xede-audientzia horiei zuzenduta, eta esan liteke, gainera, arrakasta handiarekin egin dela, eta belaunaldi bakoitzak ETBn beretzat erreferentzia izan den mundu bat edo produktu bat topatu duela, euskaraz. Bere garaian Txirri, Mirri eta Txiribitonek sekulako arrakasta izan zuten haur euskaldunen artean. Haiekin hasi ziren umeak ja-

«Gaur egun euskarazko telebista 2.000 kanalen arteko bat da. Eta hori arazo handia da, audientziak sakabanatu egiten dira. Egoera horri aurre egin beharra baino gehiago, kontua da egoera horretan ikusleak geure produktuetara erakartzen ikasi behar dugula»



da oso hazita daude eta beharbada unibertsitatea amaituta daukate jada, baina beste batzuk etorri dira, ezta? “Shin-chan” ere aipatu behar da, edo “Dragoi Bola”, “Unibertsolariak” eta Betizuren mundua... Nik uste dut nahikoa asmatu dela, xede-audientzia horietan asmatu dugula eta belaunaldi bakoitzari erreferentzia bat eskaini diogula euskaraz. Galdetu besterik ez dago. Gazteek gauza bat esango dute, zaharragoek beste bat, baina, esan dezagun:

*«Hedabide batek
beti dauzka
erantzukizunak
gizartearen
aurrean, eta
EiTBk oraindik
handiagoak;
azken batean,
gizartearekin
kontratu bat dauka,
EiTB sortzeko legean
jasota dagoena, ez
edozein kontratu»*

Euskal Herriko azken belau-
naldientzat ETB erreferentzia
bat izan da.

**Nabarmenduko zenuke gora-
beheraren bat ETBren arlo
horretako ibilbidean?**

Nik esango nuke gure gorabe-
herarik handiena lehiaren
handitzea izan dela. Euskal
Telebista sortu zenean Espai-
niako telebista publikoa bai-
no ez zegoen Hego Euskal He-
rrian, TVE1 eta TVE2 [gaur
egun La 2], eta halako batean
ETB sortu zenean, hiruren ar-
teko lehia zen; gero ETB2 sor-
tu eta lauren arteko lehia
bihurtu zen. Baina 1990eko
hamarkadan Estatu espainia-
rrean telebista pribatuak sor-
tu ziren eta apurka lehia han-
ditzen joan zen, oso urte
gutxiren buruan satellite bi-
dezko kanalak hasi ziren, ge-
roago kable bidezko kanalak,
Internetetik datozkigunak...
Lehia handitu den bakoitzean
lehiakide kopurua biderkatu
egin da, askorekin biderkatu.
Sasoi batean euskarazko tele-
bista lau kanaletako bat zen
eta gaur egun euskarazko te-
lebista 2.000 kanalen arteko
bat da. Eta hori arazo handia
da, audientziak sakabanatu
egiten dira. Egoera horri aurre
egin beharra baino gehiago,
kontua da egoera horretan
ikusleak geure produktuetara
erakartzen ikasi behar dugula.

**Euskarazko kate pribatuak
ere badaude. Horientzat ere
erreferentzia da ETB?**

Oro har euskarazko hedabide
lokaletan lankidetzak hitzarme-
nak dauzkagu, eta alde horre-
tatik erreferentzia gara. Euska-
ra ereduari dagokionez, nik
Bilbon Hamaika Telebista
ikusten dut, eta batuan egiten
du, gutxi gorabehera ETBk
markatu duen ildotik. Eta nor-

mala da, zeren, azken batean,
Unibertsitatean kazetari be-
rriek ikasten dutena guk landu
dugun eredua da.

**Gizartean izan duzuen eta
duzuen funtzioa ikusita,
erantzukizun handia izan
behar du zuen lanak.**

Bai, hedabide batek beti dauz-
ka erantzukizunak gizartearen
aurrean, eta EiTBk oraindik
handiagoak; azken batean, gi-
zartearekin kontratu bat dau-
ka, EiTB sortzeko legean jasota
dagoena, ez edozein kontratu.
EiTBk euskal gizartearen au-
rrean hartzen duen konpromi-
soa zerbitzu publikoa ematea
da, eta zerbitzu publiko horre-
tan bereizi egiten dira, alde ba-
tetik, informazioa zabaltzea,

herritarrei gizartean eta politi-
kan parte hartzeko aukera
ematea, gure kasuan euren
ahotsa zabaltzeko aukera ema-
tea, eta, beste alde batetik, eus-
kal kulturaren sustapena egi-
tea eta, lehen esan dudan
moduan, hezkuntza sistema-
ren osagarri izatea. Horiek di-
ra haren betekizunak eta mo-
mentuz esan liteke ETBk,
herritarren iritzian, betetzen
dituela.

**Gaur egun sare sozialak hor-
daude eta horiek ere badute
eragina hizkuntzan, ezta?**

Bai, jakina. Telebistaz ari gara,
eta telebista badakigu zer den,
etxeko egongelan daukagun
aparatura, baina gaur egun ho-
ri baino askoz gehiago da, tele-

bista Interneten eta sareetan
dabilen produktu bat da. Alde
horretatik, EiTBn konturatuta
gaude horretaz eta azken urte-
etako lana horretara zuzendu-
ta dago. Sareetan egon beha-
rra, jendeak ikus-entzunezko
produktuak kontsumitzen di-
tuen lekuetan egon beharra,
Youtuben... Aplikazioak sor-
tzen ari gara, haurrentzat eta
gazteentzat: Hiru, Goazen,
Gazte aplikazioak, gure pro-
duktuak nahi izanez gero mu-
gikorrean kontsumitzeko, edo
tabletan... Eta urrats gehiago
egitekoak gara, zeren mundu
hau, sareen mundua, oso arin
mugitzen da, oso arin ebolu-
zionatzen du, eta egunean
egon beharra dago. Azken ur-
teetako ahalegina hori da.



GAUR8



ireki gure leihoa

Txakurrak beti txakur

Miren Azkarate
Badiola

Pasa da beste behin ere Martxoaren 8a. Mundu guztian zehar indarrez betetako irudiak ikusteko aukera izan dugu aurtengoan ere. Adin guztietako emakumeak eta feministak, umeak, gazteak, helduak... denak batera abesten, oihuka, pozik eta haserre, ospakizuna bai baina aldarria den egunaz gozatzen.

Medio ofizialek denbora eskaini diote gai honi egun honetan, ohi baino gehiago beharbada. Baina ez dituzte ez irudi guztiak eman, beti bezala. Ez dituzte

erakutsi egun honetan mundu guztian zehar izan diren poliziaren jazarpen eta oldarraldien irudiak. Bai, egun honetan ere, txakurrak beti txakur, hemen eta munduko edozein zirrikitutan.

Ez dituzte erakutsi adibidez Istanbulen emakumeen manifestazio baten aurka botatako gas negar-eragileen irudiak; edota Parisen metroko eskailertan eserita zeuden ehunka emakumeak nola atera zituzten arrastaka, kolpeka bidea ireki zezaten; edo Txilen tankeetatik ur txorrotadak jaurtiaz poliziak; edo

(eta urrutira joan gabe) hemen Euskal Herrian identifikatu eta Mozal Legea ezarri dieten emakumeen kasua. Hiltzen gaituzten honetan, urtean behin hartuko ditugu batera kaleak eta hau da zuen jarrera? Polizia jaun-andreak, ez al zaizue iruditzen indarra beste leku batean jarri beharko zenuketela behingoz?

Azkenaldian pankarta originalak eta oso onak ikusi ditut hainbat gairekin, gaurkoan horietako batekin bukatuko dut: “Koronabirusa baino okerragoa da zure kuadrillako bat zipaio izatea”. •

Oroitza

Antton Izagirre

Irakurri eta entzun dizkiagu hitz xamurrak, goxoak, kolorez jositako berbak. Neuk ere lerro hauek eskaintzen didaten aukeraz baliatu nahi diat agur eupada igortzeko. Bazekiat irakurriko dituala. Irri egingo duk, betiko moduan. Bai, bazekiat, eder zale baintzen ere, ez ditut izan sekula losintxak gogoko.

Entzungo huen behin baino gehiagotan badirela sekula hil beharko ez liratekeenak; agian heuk ere ezagutuko huen bat baino gehiago eta ziur aski halako aitorpenen bat egingo haiz. Oraingoan hiregatik entzutea tokatu zaiguk eta buruarekin zalantzarik gabe aitortu diagu. Hiri gehiegizkoa irudituko zaik eta egindako lana lantalde bati eskertuko diok eta haienganako laudoriotan ur-

tuko haiz. Nik ez diat ukatuko hala izan ez denik, baina horretan ere beti asmatu izan duk.

Denok aitortu diagu, irakaskuntzaren etengabeko berrikuntzari eginiko ekarpena. Hik Hasi mugimendutik, aldizkariaren orrietatik, pentsamenduaren sarkontzetik, emozioen aldarrikapenetik egin duk/duzuen/dugun ibilbidea sendoa eta irmoa izan duk eta horretan, hiri aitortzea gustatu ez arren, *alma mater* izan haiz. Ez zekiat nola esan hi gehiegi lotsarazi gabe, halako liderra edo... ez, agian hiri, «itzaina» deitzea gehiago gustatuko zaik. Badakik, idien aurretik bidea erakusten zuen hura. «Kar, kar» egingo duk, bizkarrean kolpetxo bat emanez, hor eten nahian bezala kontu horiek.

Aitortzen diat, mugimendu horren hasiera hartan ez genuela pentsatu ere egingo halako balioak biltzeko gai izan zitekeenik, baina pauso bat aurrera eman eta ausartu hintzen tira egitera eta, bere bueltan, askotan mokoka ibili izan garen ikastola eta eskola publikoetako irakasleak batera lanean jartzeko dohaina izan duk.

Orain aste batzuk jaso genian berria: «Joxe Mari Auzmendi hil duk!». Mina hartu genian baina biharamunean kantuan agurtu hindugun. Hirekin batera zahartu nahi genian, borrokatu genuenagatik borrokatzeari utzi gabe, baina hi aurretik joan haiz, beti bezala, aurretik bidea egiten.

Ba jakin ezak, orduan ere, hire alboan nahiko genukeela! •

LEKU LIBREA AL DA INTERNET?

Duela 31 urte askatasun esparru izateko bokazioz jaiotako sareen sarea beti ez da hitz eman zuen bezain askea

Leku librea al da Internet? Berez promesa horrekin sortu bazen ere, gero eta muga gehiago dauzka eta adierazpen askatasuna babestea dilema garrantzitsua bihurtu da.

Horren erakusgarri dira “itzalaldiak” deiturikoak, hainbat gobernuak aldi baterako egiten dituzten Interneteko mozketak, protestak edo mobilizazio sozialak kontrolatzeko irtenbide gisa. Hori izan zen, hain zuzen ere, martxoaren 15eko Interneteko Zentsuraren Aurkako Munduko Egunaren jaiotzaren arrazoietakoa. Access Nowren txosten baten arabera, 2018an gutxienez 196 blokeo edo “itzalaldi” egon ziren Interneten 25 herrialdetan. Eta etorkizun hurbilerako aurreikuspenak ez dira baikorrak, azken urteetan zentsurak gora egin duela uste baitute adituek.

Horrela islatu du “Freedom on the Net” izeneko txostenak mundu osoko 65 herrialdetan Internetek duen askatasuna aztertu eta gero. Ikerketa horren arabera, bederatzigarren urtez jarraian Interneteko askatasun globalak behera egin du: aztertutako herrialdeetatik 33k galdu dute askatasuna 2018ko ekainetik, eta soilik 16k izan dute hobekuntza garbia. Askatasun rankingaren puntuazioan jaitsierarik handienak Sudanen eta Kazakhs-tanen izan dira, Brasilek, Bangladeshek eta Zimbabwek jarraituta.

Gobernuaren zentsurak sortzen dituen zailtasunez gain, analistek diote gaur egun In-

 **JENDARTEA / GAUR8**

Duela 31 urteko martxoaren 12an, Tim Berners-Lee ikertzaile britainiarrak hipertestuak transferitzeko protokoloa deskribatu zuen, urtebete geroago World Wide Web izango zena. Ordutik aurrera, sareen sarerako sarbidea izateak askatasun esparru batean sartzea esan nahi zuen, 2006an Nazio Batuek funtsezko eskubidetzat jo zutena. Hala ere, Internet zentsurarik gabeko plaza publikoa izango zen promesa ez da beti betetzen.

Internet beste borroka baten erdian dagoela: adierazpen askatasunerako eskubidea babestu nahi du eta, aldi berean desinformazioari, manipulazioari, gorroto-diskurtsoei, diskriminazioari, intimitatearen urraketari edo plagioei aurre egin behar die. Oreak konplexua.

Adituen esanetan, «Facebook, Twitter edo Instagram bezalako gizarte plataforma handiei edukia mugatzea beste aukerarik ez zaie geratzen, he-

Erabateko askatasunaren plaza izateko helburuarekin sortu zen Internet, baina azkenaldian askotariko mugak sortzen ari zaizkio.
GAUR8

rrialde bakoitzeko legedia eta usadioak eta ohiturak bete nahi badituzte. Baina oso zaila da gehiegikeriarik egin gabe egitea».

PROPOSAMEN BERRIAK

Plataforma sozial handien edukietan izandako interben-tzionismoari egindako kritikek eta Interneten jatorrira itzultzeko nahiak –sarea adierazpen askatasunerako mugarik ez zegoen espazio gisa erakitzen zenean– proposamen berriak ekarri dituzte berekin.

Horrela iritsi dira merkatura hamar plataforma baino gehiago, horien artean Mastodon, Twitter bezalako funtzioak dituen *microblogging* sare sozial bat, dagoeneko mundu osoan 2,2 milioi erabiltzaile dituela baieztatzen duena. Beste aukera bat GAB da, 800.000 erabiltzaile ingururekin, Twitterren antzeko beste sare sozial bat, baina ezin da deskar-

gatu ez Google Playtik ez App Storetik, bere webgunetik baizik. Baimenduta dago ia dena bertan argitaratzea, indarkeria, legez kanpoko pornografia edo erabiltzaileei buruzko informazio konfidentziala bul-tzatzen duten edukiak izan ezik. Edota berriena, Pichagram, Instagramen antzekoa, baina artistentzat pentsatuta eta zentsurarik gabe. Aukera askeago gisa aurkezten dira, eta, kasu askotan, esplizituki, beste plataformen «zentsura-ren aurkako» alternatiba gisa.

Pichagram, Murtziako programatzaile eta ilustratzaile batek sortutako plataforma da. Bertan, beren lanetan biluziak sartzen dituzten artistek Instagram ez den beste espazio bat dute horiek zabaltzeko, plataforma tradizionaletan horrelako edukiak blokeatu egiten baitira, obra artistiko bat pornografiatzat har daitekeenetik bereizten ez delako.





> Txotx sasoia, abian Japonian ere

Zapiain sagardotegiaren esku-tik eta 400 bat botilaz horni-tuta, Japoniako hamabost jate-txe eta tabernak txotx sasoia ireki dute. Azken urteotan, sa-gardoa ekoizten duten upategi berriak sortu dira Japonian.

Euskal gastronomiak eta sa-gardoaren kulturak gero eta interes gehiago eragiten dute Japonian. Izatez, beren sagar-do propioa ere ekoizten hasi dira herrialde asiarrean. Txotx



sasoia-aren ohiturari jarraiki, zenbait jatetxe beren irekiera berezia ospatzen ari dira.

Topaketotan, Astigarragako Zapiain sagardotegiko sagar-doak dastatzeaz gain, bertara-tzen diren japoniarrek euskal sagardoaren historia ezagutze-ko aukera ere izango dute. Ho-rrez gain, sagar motak, ekoiz-pen prozesua eta sagardoa inguratzen duten adierazpide sozialak ere ezagutuko dituzte.

> Ortega Smithen positiboa koronabirus proban

Javier Ortega Smithek positibo eman du koronabirusaren proban, Vox alderdiak komu-nikatu baten zazpigarren pun-tuan iragarri zuenez. Bada, ko-munikatuaren zazpigarren puntuan aipatutako berria bi-rusa bera baino azkarrago za-baldu zen. Bi egun lehenago, eskuin muturreko alderdiak milaka jarraitzaile elkartu zi-tuen Vistalegren, eta parla-mentaria hitzordura joan zen.

Positiboari buruzko infor-mazioa eman aurretik, alder-



diak Espainiako Gobernuaren aurka jo zuen. «Lañoak izan gi-nen gobernu honek, gutxie-nez, bere propaganda agenda-ren gaintetik espainiarren osasuna lehenetsiko zuela us-te izanda». Era berean, Mar-txoaren 8ko mobilizazio femi-nistak gaitzetsi zituzten berriz ere, eta mugetan «neurriak» erreklamatu zituzten. Hala ere, Vistalegreko ekitaldia os-patzea hanka-sartzea izan zela onartu zuten, baita barkame-na eskatu ere .



> Finala aldarrikapenerako euskal derbia izateko deia

Kopako finala Realaren eta Athleticen arteko derbia izan-go da. Yurik Granadan Athleti-cen gola sartu eta berehala za-baldu ziren sareetan bi taldeen arteko kidetasuna eta euskal-tasuna adierazteko aukera ona izango zela zioten mezuak. Bi-de batez, euskal nortasuna al-darrikatzeko egun aproposa dela azpimarratu dute.



Realaren eta Athleticen arte-ko beste partida historiko bat gogora ekarri dute askok: Ato-txan lehen aldiz ikurrina atera zutenekoa. Kortabarria eta Iri-bar izan ziren orduko protago-nistak. Irudi hura errepikatze-ko aukera ona izan daiteke finala. Koronabirusa txistuak ekiditeko aitzakia izan daiteke-ela ere aipatu du baten batek.

**Ana Arruarte Lasa**

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Errealitate birtuala, errealitate areagotua eta errealitate mistoa: zer da zer?



Haur bat, errealitate birtualeko betaurrekoak jantzita.

GAUR8

Gertu egon eta usu nahastenen diren kontzeptuak dira errealitate birtuala, errealitate areagotua eta errealitate mistoa. Gertu bai, baina berdina ez. Goazen, bada, horietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak deskribatzera, bereizteko gai garela ikusteraino.

Errealitate birtualak erabat artifiziala den mundu batean murgiltzea ahalbidetzen du, berez erreala ez den mundu batean. Imajinatu, adibidez, medikuntzako ikaslea izanik aukera daukazula pertsona baten “gorputzean” sartu eta haren muskuluekin, hezurrekin edo nerbioekin “zuzenean” elkarreragiteko. Eta ingurune artifizial horretan zentzumen-esperientzia oso bat “bizitzeko” aukera ematen du. Mundu birtual horretan murgiltzeko, normalean, betaurreko bereziak eta entzungailuak behar izaten dira. Betaurrekoek errealitate zehatz hori simulatzeko diseinatuta egon behar dute, eta betaurrekoak janzten dituenak errealitate birtual hori baino ez du ikusiko bere begien aurreko pantailan, hau da, betaurrekoetan txertatutako pantailan. Betaurrekoek itxiak izan behar dute eta pantailan dagoena baino ez dute ikusten utziko. Gainera, ordenagailu edo *smartphone* batera, berez orde-

nagailu bat den telefono mugikor batera, konektatuta egon behar dute, eta, sentore batzuen bidez, buruaren mugimendua antzemango dute, mundu birtualean egingo duzuna igarritik. Entzungailuek soinuak nondik datozen jakiteko balioko dute, eta norberaren burua orientatzen lagunduko dute. Kasu batzuetan, gainera, sistema kontrolatzeko agente-mekanismo bat erabil daiteke, menua, objektuak edo ingurune birtuala bera kontrolatu eta kudeatzeko.

Errealitate areagotua, aitzitik, mundu edo ingurune erreala objektu digitalekin konbinatzen du. Ingurunean daukazun elementuak ikusteko gai izateaz gain, ingurune horretan benetan ez dauden objektuak, animazioak edo datuak ere izan ditzakezu. Erraz ulertzeko adibide bat: altzari-pieza bat gela bateko puntu jakin batean nola geratuko litzatekeen ikusi ahal izatea. Normalean, espresuki diseinatutako betaurreko edo kaskoak nahikoak izango dira, berritoki ere kamera eta pantaila bat eskatzen dutenak eta ordenagailu batera konektatuak, zein errealitate birtuala kudeatzeaz arduratuko baiten. Baina kasu honetan, derrigorrez, betaurreko edo kaskoen lenteek nahiko gardenak izan beharko dute, ingurune erreala

haien bidez ikusi behar baita. *Smartphone*-etan ere simula daiteke errealitate areagotua. Gailuaren kamerak erabiliko dira pantailan ikusten ari garen benetako elementu fisikoak erakusteko, eta gailuaren prozesadorea, berriz, elementu digitalak kudeatzeko eta erakusteko, ingurune errealekin elkarreragiten ari direla ikusaraziz. Egun, *smartphone*-ak errealitate areagotua praktikan jartzeko eta esperimentatzeko baliabide nagusiak bilakatu dira.

Eta, errealitate mistoa, azkenik, errealitate birtualaren eta errealitate areagotuaren arteko konbinazioa baino ez da. Bi kontzeptuen artekoa baino ez da, eta horri esker posible da, besteak beste, mundu birtual batean objektu errealekin elkarreragitea, edo mundu guztiz birtual batean murgiltzea, edo norberaren ingurune errealean elementu birtualak erreproduzitzea. Errealitate mistoan kasko edo betaurreko itxiak behar dira, ordenagailu batera konektatuak, eta ahalbidetuko dutenak pantaila bidez erakustea bai ingurune erreala, kameraz baliatuz, bai ingurune guztiz birtuala.

Egun, bideo jokoen arloan presentzia nabarmenena daukaten kontzeptuak badira ere, beste arlo batzuetara ere zabaltzen ari dira, hala nola, merkataritzara edo industriara. Adibidez, eta merkataritzaren arloan, enpresek, pixkanaka bada ere, teknologia horien onurak aprobetxatzen ari dira, besteak beste, publizitate helburuetarako, kontsumitzailearengana modu harrigarriagoan heltzea ahalbidetzen baitute. Industrian ere erabil daitezke, diseinu mailan edo hainbat prozesutan –mantentze lanetan, konponketetan...– denbora aurreztearren. Eta honetan ere, beste askotan bezalaxe, hezkuntza edota medikuntza arloetan dago itxaropenik handiena. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ALBERTO OFICIALDEGUI NUÑEZ. NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA

UNTZUEKO ESKOLA MISTOKO MAISTRAK, DUELA MENDEBETE

1911n, Untzueko eskola mistoa inauguratu zuten. Garai hartan, Nafarroako herri horrek 400 biztanle inguru zituen. Eskola berria Untzueko semea zen baina Argentinan bizi zen Balbino Arizu ardogintzako enpresaburuaren laguntza ekonomikoari esker eraiki zuten. "Novedades" aldizkariak eta "El eco de Navarra" egunkariak ekitaldiaren berri eman zuten; bertan, Victoriano Labiano alkateak, kaputxino batek eta Alberto Oficialdegui parrokoak parte hartu zuten. Artikulua ilustratzen duen irudia 1916an egin zuen Untzueko parroko Alberto Oficialdegui artaxoarrak, argazkizalea zenak. Bertan hiru maistra ageri dira, argazkirako jarrita. Urte haietako maistren izendapenetan, Maria Antonia eta Mercedes Tirapu irakasleen izenak agertzen dira Untzuen.

PUENTE SEMANA SANTA

SEMANA SANTA Y DE PASCHA

CIRCUITOS Y ESTANCIAS

Del 8 ó 9 al 13

Desde Iruñea. ESTAMBUL,
MARRAKECH y PRAGA.

Desde Gasteiz. EDIMBURGO,
LUXEMBURGO, ESTAMBUL
y ESLOVENIA

Desde Bilbao. BERLIN,
MARRAKECH, LISBOA,
PRAGA, ESTRASBURGO,
BRUSELAS, ESTOCOLMO,
COPENHAGUE y CRUCERO
POR EL DANUBIO.

Desde Biarritz. PARIS Y
LYON

CIRCUITOS

»12-19/04« **EGIPTO**
(CAIRO+ CRUCERO NILO)
Directo desde Bilbao

»5-13/04« **MARRUECOS**

»5-12/04« **TURQUIA**

»13-19/04« **POLONIA**

»3-19/04« **BUDAPEST-PRAGA**

En autobús

Del 8 ó 9 al 13

VIAJES CULTURALES A
Oporto, LISBOA, PARIS, SUIZA,
BRETAÑA, NORMANDIA, EL PERI-
GORD, PAIS CATARO, LA PROVEN-
ZA, LUGO y RIBEIRA SACRA,
GIRONA MEDIEVAL,...

Y si NO
ENCUENTRAS
LO QUE BUSCAS.

LÁMANOS.

Avda. Madariaga, 25 DEUSTUA-BILBO
Tel. 94 4472526 · www.ibiltari.com

IBILTAR

